



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# ETA GU ZER?

IRAKASLEAREN ROLAREN GARRANTZIAREN AZTERKETA,  
HAURAREN IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA PROZESUAN

## GRADU AMAIERAKO LANA

**EGILEA:** Garcia Lete, Leire.

**ZUZENDARIA:** Santamaria Goicuria, Imanol.

**2021/2022**

## **Laburpena**

*Gradu amaierako lan honetan, irakaslearen rola garrantziaren inguruko azterketa sakon bat egiteaz gain, rol honek haurren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duen eragina ere aztertu dut. Hori dela eta, begirada: haurra, irakaslea, harremanak eta emozioak bezalako gaitan jarri dut ere. Beraz, hainbat dira ikerketa-lan honetan azaleratzen diren gaiak, horien artean aurkitzen dira: alderdi emozionala, harreman pedagogikoak, Haur Hezkuntzako etapa, irakaslearen rola, haurren ongizatea...etab. Lana jorrazteko, metodologia kualitatibo batean oinarritu naiz, besteak beste autoetnografian; non nire esperientzia propioak garrantzi handikoak izan diren. Horrez gainera, Practicum III aren egonaldia zehar aurrera eramandako egunerokoa zein egindako elkarrizketak, datuen bilketaren tresnak izan dira; lanaren muga erantzuteko asmoarekin. Hortaz, ikerketa-lan honen abiapuntua nire esperientzia pertsonala izango da, eta emaitzak zein ondorioak amaiera emango diote lanari.*

Hitz gakoak: irakaslearen rola, irakaskuntza-ikaskuntza, alderdi emozionala, metodologia kualitatiboa, autoetnografia.

## **Resumen**

*En este trabajo de fin de grado, además de hacer una investigación profunda respecto a la importancia del rol del profesor, también he investigado la influencia de éste en el desarrollo del aprendizaje del niño. Por este mismo motivo, mi visión también se ha centrado en temas como: el niño, el profesor, las relaciones y las emociones. Por lo tanto, son varios los temas que se abarcan en este trabajo de investigación, entre ellos se encuentran: el aspecto emocional, las relaciones pedagógicas, la etapa de Educación Infantil, el rol del profesor, el bienestar del niño...etc. Para tratar este trabajo, me he basado en la metodología cualitativa, a más concretar, en la autoetnografía; donde mis propias experiencias han sido de gran importancia. Además de eso, el diario y las entrevistas llevadas a cabo en el Prácticum III, han sido base de la recolecta de datos; con la intención de dar respuesta al objetivo de este trabajo. Por lo tanto, mi experiencia personal va a ser punto de partida en este trabajo de investigación, y los resultados y las conclusiones le van a dar fin al trabajo.*

Palabras clave: rol del profesor, aprendizaje-enseñanza, aspecto emocional, metodología cualitativa, auto etnografía

## **Abstract**

*In this final degree project, apart from making a deep investigation about the relevance of the role of the teacher, I have also investigated how this role influence on the child learning development. For that reason, my vision has also focus on themes like: child, teacher, relations and emotions. Therefore, there are several topics covered through this work of investigation, such as: emotional aspect, pedagogical relationships, the relevance of kindergarten education, the role of the teacher, child well-being...etc. To discuss this work, I have base on a qualitative methodology, specifically on an autoethnography; where my personal experiences have been relevant. In addition to that, the journal and the interviews done on my third internship, have been the basis of the information collection. So, my personal experience will be the starting point of this work of investigation, and the final results and conclusions, will put an end to the work.*

Key Words: role of the teacher, learning development, emotional aspect, qualitative methodology, autoethnography.

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b> .....	4
<b>2. MARKO TEORIKOA</b> .....	5
2.1. Gaur egungo egoera: COVID-19ak sortutako aro berria.....	5
2.2. Hautzaroaren garrantzia: haurren eraldakuntzan baldintzatzaile .....	6
2.2.1. Zein da haurra? .....	6
2.2.2. Haurren ongizatea: lehentasuna ala bazter uztea?.....	8
2.3. Irakaslearen papera: erdigunea izatetik bidelagun izatera .....	9
2.3.1. Zein da irakaslea? .....	9
2.3.2. Harreman pedagogikoak: irakasle-ikasle .....	10
2.3.3. Irakaslearen baliabideak: oinarrizko oinarriak .....	12
2.3.3.1. Atxikimendua vs lotura.....	12
2.3.3.2. Arauak vs limiteak .....	13
2.3.3.3. Konfiantza vs beldurra .....	14
2.3.4. Alderdi emozionala: egonkortasunaren giltzarri .....	15
2.3.4.1. Emozioen garrantzia haurren garapenean.....	15
2.4. Formakuntza: haurra etengabeko ikaskuntzan, eta, irakaslea? .....	17
<b>3. HELBURUA</b> .....	18
<b>4. MARKO METODOLOGIKOA</b> .....	19
4.1. Esperientziaren testuingurua eta garapena .....	19
4.2. Ikerketarako erabiliko den metodologia .....	21
4.2.1. Ikerketa Kualitatiboa .....	21
4.2.1.1. Autoetnografia .....	22
4.2.2. Ikerketarako datuen lorpena eta trataera .....	23
4.2.2.1. Datuak biltzeko erabili ditudan tresnak.....	24
<b>5. EMAITZAK</b> .....	24
5.1. Egunerokoari eta elkarrizketei esker ateratako emaitzak.....	25
5.1.1. Irakaslearen rola garrantzia .....	25
5.1.1.1. Gizarteak irakaslearen rolean izandako eragina .....	25
5.1.1.2. Autoritatea izatetik, egindakoa zalantzan jartzera .....	26
5.1.1.3. Zein da beraz, irakaslea? .....	27
5.1.2. Haurra: ahotsa ez izatetik, gehiegizko hitza ematera .....	28
5.1.2.1. Hautzaroaren garrantzia eta ongizatea.....	30
5.1.3. Irakasle-ikasle arteko harremana eta ikaskuntzan eragina.....	31
5.1.4. Alderdi emozionalaren garrantzia .....	32
5.1.5. Esperientzia honek niregan izandako eragina: itzultzaile emozionala ....	33
<b>6. ONDORIOAK</b> .....	35
<b>7. MUGAK ETA HOBETUNTZA PROPOSAMENAK</b> .....	36
<b>8. ERREFERENTZIAK</b> .....	36
<b>9. ERANSKINAK</b> .....	41

## 1. SARRERA

Irakaslearen lanbidea definitzea ez da erraza, are gehiago jakinda sozialki zein pertsonalki lanbide honekiko iritzi ugari daudela, maiz ezkorrak direnak. Tamalez, gaur egun, irakaslearen lanbidea ez da hoberen balioztatuta dagoen lanbidea, eta sarritan, gutxietsia izaten da; hezkuntza munduan lanean aritzen diren langileengandik zein hezkuntza munduan lanean aritzen ez direnengandik. Nork ez baitu bizitzan behin edo behin irakasleak soilik oporretan egoten direlaren zurrumurrua entzun? Edota, haurrak zaintzearen ardura ez dela medikua izatearen bezain bestekoa?

Harrigarria dirudien arren, lanbide honi dagozkion zenbait iritzi eta aurreiritzi indartzearen ardura gure artean aurkitzen da, eta gure artean esaten dudanean, nire profil bereko pertsoneri egiten diet erreferentzia, hau da, Haur Hezkuntzako graduko ikasleei. Haur Hezkuntzako gradukoa 4.mailako ikaslea naizen bezala, ziurtatu dezaket maiz entzun ditudala irakaslearen lanbideari dagozkion zenbait iritzi negatibo, eta horrek, soilik indartu egiten du gizartean gure lanbideari buruz aurkitzen diren ikuspegi negatiboen estatus maila.

Ikerketa-lan honen zehar beraz, irakaslearen rola garrantziaren inguruan arituko naiz berbetan, eta nola rol honek, haurraren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragiten duen. Eragin hori, irakaslearen rola garrantziaren aztergai gisa erabiliz. Beraz, lanaren foku nagusia irakaslea izango da, baina beste hainbat alderdiez josita egongo da ere, haurra eta alderdi emozionala bezala. Alderdi guzti horiek, haien arteko hari eroaleak baitira, elkarlotuta daudenak.

Horrez gainera, ohikoa da haurra haren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko erdigunea eta protagonista bakarra delaren iritziak entzutea, baina ahaztu egiten zaigu prozesu hori bermatu ahal izateko ezinbestekoa dela irakaslearen papera. Hots, baieztapen horiek soilik irakaslea bigarren plano batean kokatzen dute. Non gelditzen da beraz irakaslearen papera? Zer gertatzen da gurekin? Ikerketa lanaren izenburuak dioen bezala: Eta gu zer?

Amaitzeko, hasieran esan bezala, irakaslea izatea zertan datzan azaltzea ez da erraza, baina argi dago ardura ugari hartzen dituela bere baitan. Etorkizuneko irakasle bezala zein nire esperientzia propioak bultzatuta, ziurtatu dezaket ardura guzti horiek aurrera eraman ahal izateko adimen-osasun egoki bat izatea ezinbestekoa dela. Hortik dator beraz lan hau aurrera eramatearen grina, nire esperientzia pertsonalarekin uztartutako lana baita. Besterik gabe, gozamenetik egindako lana da.

## **2. MARKO TEORIKOA**

### **2.1. Gaur egungo egoera: COVID-19ak sortutako aro berria**

Familia Coronaviridaetik etorritako birus berria, COVID-19 bezala izendatua dena, 2019ko abenduaren 31an izan zen lehenengo aldiz detektatua, Wuhanen, Chinan. Aldiz, 2020ko martxoaren 11an, Osasunaren Munduko Erakundeak (OMS), pandemia egoera adierazi zuen. Honek, konfinamendua bultzatuz eta haurren ongizatean inpaktu handia eraginez (Erades y Morales, 2020).

Pandemia deklaratu ostean, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta Nafarroan, berehala areagotu ziren kasu positiboak. Gainera, aurrekaririk gabeko pandemia honetan, birusari aurre egiteko intentzioarekin zein pertsona ahulenak kutsatzetik babesteko asmoarekin, neurri zorrotzak ezartzen hasi ziren gizartean. Neurri horien artean, herrialdeko ikastetxe guztien, enpresen, eta komertzioen itxiera aginduz. Baita ere, arestian esan bezala, herritar guztiak konfinatzera behartuz (Berasategi et al., 2020).

Estatuko presidentek alarma egoeran egindako diskurtsoan, haurrak ez zituen behin ere aipatu, eta dekretua bereziki zorrotza izan zen haiekin; adingabeei etxetik ateratzea debekatu baitzitzaien (Grechyna, 2020). Besteak beste, eskolak itxitako lehen zentroak izan ziren eta haurrak, lehenak etxeetan entzerratuta gelditzen (Camison, 2020).

Hots, gaur egun 2022. urtean aurkitzen garen arren, COVID-19a oraindik ere gure egunerokotasunean pil-pilean dagoen gaia da. Horren aztergaia, musukoen murrizketa dugu (duela gutxi kendutakoa izan baita), eta harremantzeko eran eman diren aldaketak ere. Beraz, esan genezake, gaur egunenean COVID-19aren aztarnak aztergai ditugula.

Orain arte esandakoarekin jarraituz, gaixotasun edo birus honen ondorioz, haurrak, hasieratik seinalatuak izan dira. Haiek, gaixotasunaren kutsatzearen arduradunak bilakatuz. Honen aurrean, helduak, kontagiatuak izatearen beldurrarekin, haiengandik urruntzen hasi ziren eta haurrak, inolako azalpenik gabe zein egoera kudeatzeko erramintak eduki gabe, helduek haiekiko zuten jokaeran aldaketak sumatu zituzten (Camison, 2020).

Aurreko datuak oinarri hartuz, birusak sortutako ondorioak anitzak izan direla ulertzera eramaten gaitu, bai alderdi pertsonalean zein sozialean eta haurrak,

kaltetuenak izan direla. Ez dugu ahaztu behar, haurtzaroan bizitako guztiak, ondoren gizabanakoaren bizitza osoaren zehar eragina izango duela (León-Santi, 2019). Horregatik, ezinbestekoa da haurren zainketa egoki bat bermatzea eta horretarako, Haur Hezkuntzako etapa dugu. Zein da beraz, haurtzaroak biltzen duen ezinbestekotasun eta garrantzi hori?

## **2.2. Haurtzaroaren garrantzia: haurraren eraldakuntzan baldintzatzaile**

### **2.2.1. Zein da haurra?**

Maiz galdetu izan ohi diot nire buruari galdera hori. Haurraren mundua zabala eta sakona da, konplexutasunez beteta dago ere, eta haren inguruan hitz egiten dugunean, alderdi ugari hartzen ari gara kontuan; haurra, etengabeko formakuntzan eta garapenean baitago.

RAEko (s.f.) hiztegi digitala aztertutik, hainbat dira haurrari dagozkion ageri diren kontzeptuak, zehazki, ondorengoak direnak: haurtzaroan dagoena, urte gutxi dituen, esperientzia gutxi duena, hausnarketa gutxirekin edo inozokeriaz jokatzeko duena etab (Real Academia Española, s.f., Niño,ña). Hots, nabarmena da haurraren inguruan hitz egiten dugunean, hari erreferentzia egiteko erabiltzen diren kontzeptuak ugari direla, eta haren adinak, ez dioela heldu bezala identifikatzen.

Arestian esan bezala, haurra, etengabeko garapenean dago, eta garapen hori modu esanguratsu eta egoki batean ematen delaren berri jakin ahal izateko, hainbat adierazle aurkitzen dira. Adierazle horiek irakasleengandik erabiliak izaten dira normalean. Haurrek, haiek ezarritako konpetentziak bete dituztelaren berri jakin ahal izateko, eta konpetentzia horien erreferentzia gisa curriculumak izanik (237/2015 Dekretua, 2016).

Beraz, haurraren garapena osatua dela esan ahal dugu, alderdi ugari hartzen baititu bere baitan. Hitz egokiagoak erabiliz, haurraren garapena integrala da, baina zer diogu garapen integralaz hitz egiten dugunean? Zertan datza hori?

Haurren garapen integrala heltze-prozesu interaktibo bat da, pertzepzio, motore, kognitibo, hizkuntza, sozio emozio eta autokontrol-trebetasunak edo gaitasunak modu ordenatuan garatzearen ondorioa dena. Prozesu hau, karga historiko, sozial eta kulturalen ondorio da, non gizabanakoa aurkitzen den, eta hura definitzen laguntzen dutenak diren. Honen aurrean, Vigotskik, gizakiaren garapen integralak kulturaren zein gizakiaren erlazio sozialetan determinatzaileak zituela baieztatzen zuen. Horregatik, gizakiaren garapenean, hezkuntza, ezinbestekoa eta

funtsezkoa zela azpimarratzen zuen, ahaztu gabe, pertsona bakoitzak erritmo eta denbora ezberdina beharko zuela prozesu berdinari dagokionez. Honen aurrean, pertsona bakoitzak garapenaren 3 esparru ezberdin zituela ondorioztatu zuen: erreala, hau da, ze mailatan aurkitzen den gizabanakoa; potentziala, honek, gizabanakoa iritsi daitekeen mailara egiten dio erreferentzia, eta azkenik, garapen hurbileko eremua, aurreko bi esparruen artean aurkitzen dena da (León-Santi, 2019).

Bestalde, lehenengo esparrutik bigarren esparrura igarotzeko, laguntzaile edo bitartekari abantailatsuago bat izatea, gizabanakoa bere potentzial osoa lortzera gida dezakeena ezinbestekoa da (Vigotski, 1984). Gaur egun, laguntzaile edo bitartekari hori, irakaslea dela esan ahal dugu.

Beraz, haurren garapen integrala, erlazio sozial baten bitartez bermatu egiten da, non gaitasun kognitiboak, emozionalak, fisikoak, sozialak eta kulturalak indartzeko aukera ematen duen, eta hauei esker, gizabanakoak baldintza onuragarriagotan aurkituko da, haren bizitza garatu ahal izateko (León-Santi, 2019).

Ikaskuntza aldiz, ez da soilik tresna edo sistema kontzeptualen jakitean eta erabilpenean oinarritzen, baizik eta, eskolako agertokian testuinguruan jartzean datza ere (Baquero, 2001). Honek, gure sozietatean Haur Hezkuntzako etapa beharrezkoa ez den arren, haren beharraren eta garrantziaren inguruko hausnarketa egitera eramaten gaitu.

Azken batean, Haur Hezkuntzako etapak, haurren garapenean berebiziko garrantzia du, garai honetan izandako esperientziak etorkizunari begira erabakigarriagoak izango baitira. Bizitzako lehenengo urteetan egiten eta egiten ez den guzti horrek, ondoren, gizabanakoaren bizitza osoaren zehar eragina izango baitu. Horregatik, haurren garapena eta Haur Hezkuntzako etapa, bateratuak joan beharko ziren (León-Santi, 2019).

Hots, Haur Hezkuntza, 0-6 urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoen lehen eskolatze etapa da, testuinguru egoki batean bermatzen dena, haurren ezaugarri pertsonal guztiak indartzeko asmoarekin. Honela, bizitza osorako izango den garapen integrala lortu ahal izateko (Cruz, 2021). Baita ere, aukera handiko denbora tarte da eta ikaskuntza modu esanguratsu batean bermatzen baldin bada, haren eragina bizitza osoaren zehar igaro daiteke. Haurren ongizate egokiago bat bermatuz ere. Hitz gutxitan esanda: “ La infancia es un fondo de reserva para toda la vida” (Camison, 2020) eta orain arte ikusi bezala, haren eraginak aspektu guztietan baldintzatzen du.



Batez ere, haurren ongizatean. Haur Hezkuntzari esker, lehen harremanak izaten hasten baita, haren nortasuna eraikitzen eta gizarteko partaide gisa hezten.

### **2.2.2. Haurren ongizatea: lehentasuna ala bazter uztea?**

Hasieran aztertu bezala, COVID-19 ak haurren ongizatean sortu duen galera azpimarragarria da. Alderdi pertsonal zein ez pertsonalean berebiziko aldaketak sortu baititu eta haurrak, hasieratik gaixotasunaren kutsatzearen arduradun gisa seinalatuak izan dira.

Konfinamendu egoerak ere haurren ongizatean ondorio latzak sortu ditu. Inpaktu honen adierazgarri sortutako zenbait sare ditugu. Horien artean, HaurrakEreBai (<https://haurrakerebai.eus/>) deituriko familien sarea aurkitzen da. Sare hau, Euskal Herria mailan 2020ko martxoan sortua izan zen, konfinamendu testuingurua zela eta, helburua gaur egun zein etorkizunera begira ume eta nerabeei laguntzea izanik. Gainera, Espainia mailan modu koordinatuan lanean dabil Heike Freirek sortutako “Por Amor a la Infancia” sarearekin (<https://www.heikefreire.com/>) eta Euskal Herria mailan, Oinherri elkartearekin (<http://www.herrihezitzailea.eus/>). Bestalde, sare honetako kide eta adituen artean Miren Camison aurkitzen da. Haurren prebentzioko espezialista da, baina filosofia eta hezkuntza munduan mugitzen da ere. Besteak beste, hezkuntza arloan, haur, gazte, eta helduekin aritzen da lanean filosofiaren “Aprender a pensar” deituriko proiektua aurrera eramanez (HaurrakEreBai, s.f.).

“Vivir para ver” Radio Euskadiko programan (Camison, 2020), haurtzaroari buruzko hausnarketak eskaini zituen, 6.minutitik aurrera entzungai, eta ondorengo gogoetak partekatzen ditu bertan:

Pandemia baino lehen, haurrak gehiegizko estimulazioan aurkitzen ziren, izugarriko pautak jarraitu behar diren gainean baitzeuden (eskola, eskolaz kanpoko jardunaldiak, etxerako lanak...). Geldialdi honen esker, haurrak gehiegizko estimulazio hori jaisteko aukera izan dute. Honek ere, oreka eta autorregulazioa izatera lagunduz.

Ildo beretik, Espainiako estatuak haurren medikazioari dagokionez munduko hirugarren postua okupatzen du, Canada eta Estatu Batuen ondoren. Honek, haurrak zaku berdinean sartu ditugularen berri ematen digu, denak berdinak direlaren pentsamenduaren joera hartu baitugu eta honen ondorioz, adierazle larrietan inolako geldialdirik ez da egiten. Hau da, arazoa edo egoera larria sakontasunean ulertu beharrean, berehalako irtenbideak bilatzen dira: medikazioak.

Hortaz, esku hartutako erritmotik jarraituko dugu haurtzaroa kolonizatzen, ala haurtzaroaren auto-erregulazioko paradigma batetik bizitzen saiatuko gara? (Camison, 2020). Honen aurreko gestio egoki bat bermatu ahal izateko, irakaslearen papera ezinbestekoa da. Haren esku-hartzearen arabera, paradigma aldatu daitekeelako. Beraz, zalantzarik gabe, irakaslearen rola ezinbestekoa da haurraren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.

## **2.3. Irakaslearen papera: erdigunea izatetik bidelagun izatera**

### **2.3.1. Zein da irakaslea?**

Irakaslea, etengabe aurrez aurre aurkitzen da ikasle talde bakoitzaren behar bereziei erantzun dien irakaskuntzarekin, konstruktibismoaren gorakadarekin eta programatutako irakaskuntzaren gainbeherarekin. Baita ere, sortzen ari den paradigma berri batekin, hala nola, hezkuntza birtualarekin. Horrek, irakasleak rol ezberdinak aldi berean garatzea sustatzen du: alde batetik, bere gaian aditua izatea eskatzen zaio, eta beste alde batetik, ikaskuntza-trebetasun sustatzailea edo informazio-iturri egokia izatea (Hernández Torres, 2018).

Beraz, gaur egun, irakaslea izatea gogoeta ekintza bat da, eta irakaslearen profil berria zerbaitek definitu baldin badezake, haren eragiteko gaitasuna da. Hortaz, irakaslea, probokatzailerak da (Vergara 2020, pp.8-9).

Irakaslea izateak rol ezberdinak aurrera eramatea dakar. Haurrei edukiak erakusteaz gain, hezi egiten dituztelako ere eta heziketa honen aurrean, bizitza pertsonal eta ez pertsonalaren arteko ezberdintasun bat egiteko ohitura dago. Gehienbat, ikasketa prozesua ez baldintzatzeko asmoarekin:

“Solemos diferenciar entre vida personal y vida profesional; pero solo tenemos una vida. Y si un día o más estamos mal por algo que nos pasó en casa, no queremos que se note en el centro educativo, tratamos de meterlo debajo de la bata de profe o maestro haciendo de tripas corazón. Y sí, es necesario gestionar esos estados para ser “profesionales”, “eficientes” y mantener el adecuado “pulso” de aprendizaje. Pero también lo es revisarlos en algún momento cercano para que sean sanados, comprendiendo de dónde proceden, cómo surgen y se expresan en nuestra vida. El contenido y los estados de nuestra vida no pueden ocultarse tras el rol de profesor o maestro, pues se muestran de un modo u otro” (Riquelme 2020, pp.21-23).

Argi dago, irakasleek bizitzaren arlo pertsonalean gertatutakoaren gestio egoki bat egin ahal izateko, konpetentzia emozionalak eskuratuta izatea ezinbestekoa dutela, beraz, zer da inteligentzia emozionala?

Inteligentzia emozionala, Daniel Golemanengandik izan zen definitua “Emotional Intelligence: why it can matter more than IQ” (2020) liburuan. Bertan, argi adierazten du haren inteligentzia emozionalaren ereduak hiru maila ezberdin dituela. Batetik, garuneko zirkuitoak. Bestetik, zirkuito horien jardueratik sortzen diren jabetzak eta azkenik, inteligentzia emozionalaren jabetza bakoitzaren mende dauden konpetentziak. Besteak beste, lau arlotan banatzen du inteligentzia emozionala: autoezagutza, autogestioa, kontzientzia soziala eta erlazioekiko kudeaketa.

Lau arlo horiek, irakasleak hurrekin aurrera eraman beharreko arloak dira, konpetentzia emozionalak eskuratu dezaten. Beste eduki eta konpetentziekin bezala. Aldi berean, harreman osasuntsuak garatu dezaten. Azken batean, harreman egokiak bermatzeko, ezinbestekoa baita konpetentzia emozionalen eskuraketa. Hortaz, irakasleak azken muga ondorengoa dela esan genezake: “...formar individuos capaces de prescindir de su auxilio, de caminar por sí mismos, de olvidar o desmentir a quienes les enseñaron” (Savater, 1998). Besterik gabe, irakaslearen lanketa haurrak hezteak izateaz gain, eskola-testuinguru egoki bat sortzea eta harreman sendoak zein osasuntsuak ere garatzea da.

### **2.3.2. Harreman pedagogikoak: irakasle-ikasle**

Irakasle eta ikasleen arteko harremanean geldialdia egin baino lehen, zer dira harreman pedagogikoak?

Harreman pedagogikoak, irakasle eta ikasleen artean ematen den harreman edo interakzio motari egiten dio erreferentzia. Esan genezake, harreman pedagogikoak dakien eta ez dakien pertsonen artean eraikitzen direla, logika hierarkiko-bertikal bati erantzunez, eskola barruko dinamikan indartua izaten dena (Lisboa-Lay et al., 2017).

Gainera, irakasle eta ikasleen arteko harreman edo interakzio mota eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan dauden edukiak ulertzea ezinbestekoa da, horren menpe baitago ikasleek hezkuntza-gaitasunak eskuratzea. Azken batean, irakaslearen estiloak eta erabiltzen duen estrategia didaktikoak eragina izango baitu eskolaren zein gelaren kliman, ikasleen parte-hartzean, arreta mailan, ulermen mailan zein hezkuntzaren errendimendu mailan (Medina-Escobar, 2015).

Jarraian, ikuspegi psikologiko batetik, irakasle eta ikasleen arteko interakzioari dagokionez, 5 maila ezberdin aurkitzen dira. Azpimarragarria da ere, maila horiek beharrezkoak direla, ikasleak gaitasunak eskuratu eta garatu ahal izateko, formakuntza akademikoari dagokionez. Lehenengo maila, *contextuala* da eta bertan, ikasleek gelako jardueretan hartzen dute parte entzulearen papera izanik. Bigarren maila, *suplementarioa* da. Honetan, ikasleek aldaketak egin ahalko dituzte ingurune sozial eta fisikoari dagokionez. Hirugarren maila, *selector* da eta maila honetan, ikasleek modu ezberdinetan erantzun ahalko diote ezartzen zaizkien egoerei. Laugarren maila, *sustitutivo referencial* deritzo eta orainaren askatasuna da. Maila honetan, ikasleek mota hauetako interakzioak izaten baitituzte erreferentzia egiten diotenean iragan zein etorkizuneko egoerei. Azkenik, bostgarren maila, *sustitutivo no referencial* da eta maila honetan, ikasleei lortu dituzten erlazioen aurreko hausnarketak egiteko aukera ematen zaie (Mares et al., 2004; Medina-Escobar, 2015 testuan aipatuta).

Bestalde, interakzio mota hauetan atxikimendua edo afektibitatea ezartzea ezinbestekoa da. Honen aurrean, irakasleak kontu handia izan behar du, eta ohartu behar da beharrezkoa dela haren praktikaren aurreko malgutasuna izatea eta haren ikasleekin afektuzko harremanak edo interakzioa bermatzea (Medina-Escobar, 2015). Irakasle eta ikasleen arteko interakzioak afektua baitakar, eta sentimenduak beharrezkoak dira ikasleen motibaziorako eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua osasungarria izateko (Artavia, 2005; Medina-Escobar, 2015 testuan aipatuta).

Beraz, emozioak irakasle eta ikasleen arteko harremanean berebiziko garrantzia dute. Irakaskuntza, testuinguru interaktibo batean ematen da, hots, transmititutako emozioak inplizituki izan da ere, funtsezko papera izango dute ez soilik ikaslearen garapen emozionalean, baizik eta irakaslearen gaitasun emozionalean eta haren lanbidearen eraginkortasunean ere (Moran-Flores, 2019).

Amaitzeko, ikaslearentzat garrantzi handikoa da irakaslearekin duen harremana, eta erlazio bakar eta berezi honek, ikasleari, irakaslearen aldetik laguntza jasotzeko aukera ematen dio haren errendimendu akademikoan zein pertsonalean (Ricaurte et al., 2015). Irakasle eta ikaslearen arteko harremana bakarra eta berezia izateko, baita ere, aipatutako laguntza hori eskaini ahal izateko, irakaslea, zenbait baliabideetan oinarritzen da eta jarraian ageriko direnak dira.

### **2.3.3. Irakaslearen baliabideak: oinarrizko oinarriak**

#### **2.3.3.1. Atxikimendua vs lotura**

Atxikimendua, haurren lehenengo urtearen zehar ematen den prozesu luze bat da. Orain arte, sinestu izan da berehalako momentu batean ematen dela, besteak beste, haurra jaiotzen den momentutik eta amak besoetan hartzen duenetik, baina sinesmen hori mito bat da. Hasieran esan bezala, atxikimendua prozesu luze bat da eta berehalakotasuna, soilik animalia batzuetan ematen da (Universo de Familias, 2017).

Atxikimendua beraz, lotura mota bat da? Atxikimendua eta lotura sinonimotzat hartu izan diren arren, bien artean ezberdintasunak nabariak daude (Burutxaga et al., 2018):

1. Konkretua vs orokorra: Atxikimendua, haurren behar mota bat bezala ulertzen da, bakarra eta ezberdina dena beste beharrekiko. Loturak aldiz, ez du zehaztapenik, erlazio eta joera ezberdinei egiten die erreferentzia, abanikoa handia eta zabala da.
2. Denboraren dimentsioa: Atxikimendua, haurrak sei hilabete dituenean agertzen da eta heldutasun-aldia behar du lehenik, atxikimendua garatzeko. Aldiz, loturak, ez du denbora mugarik. Haurra jaio baino lehen, jada amaren sabelean dagoenean, lotura bermatzen baita.
3. Banakakoa vs taldekkoa: Atxikimendua, haurren lehenengo zaintzailearen bitartez garatzen da, normalean ama izaten da, baina segurtasuna eta babesa eskaintzen dion beste edozein pertsona ere izan daiteke: aita, zaintzailea... Lotura aldiz, ez dago harreman edo pertsona kopuru jakin batera mugatuta. Hainbat pertsonen artean eman daiteke, inolako mugarik gabe.

Hots, atxikimenduari dagokionez, afektuzko harreman egoki bat haurrekin bermatzen baldin bada, ondorengoak dira haiengan sortzen diren efektuak: garapen intelektual hobea, hizkuntza hobea, jolas sinbolikorako trebetasun gehiago, garapen metakognitibo hobea, objektu eta pertsonen iraunkortasun goiztiarra, norbere burua ezagutzeko goiztiartasun handiagoa, malgutasun eta errealismo handiagoa, informazioa prozesatzeko garaian, inteligentzia sozial gehiago, esploratzeko jokabide handiagoa, irakurzaletasuna, heldutasunean lanarekiko errendimendu hobea eta ezaugarri pertsonal hobeak. Hitz gutxitan esanda, "desarrollan una intersubjetividad más auténtica" (Billeke-Huaiquán et al., 2016).

Laburbilduz, atxikimendua gaitasun eta joera konkretuen sistema da, haurrari laguntzen diotenak beste gizabanakoarekiko beharrezkoa duen hurbiltasuna izaten eta, normalean, pertsona hau gaitasun gehiago ditu eta haurrari kanpoko munduaren eskakizunei aurre egiten laguntzen dio. Aldiz, loturaz hitz egiten dugunean, bi edo pertsona gehiagoren artean ematen den elkartasunaz ari gara. Horien artean haurra eta amaren lotura dugu adibide, baina beste motatako lotura ezberdinak ere eman daitezke bizitzaren zehar. Gainera, elkartasun mota honek afektuzko osagarriak dakartza eta beharrezkoa dugu bizitzaren zehar lotura ezberdinak ezartzea, gizakiaren oinarritzko beharra baita (Burutxaga et al., 2018).

Garrantzitsua da kontuan hartzea edozein motatako lotura dela, arauak eta limiteak ezartzea ezinbestekoa da. Harremanetan ere, limiteak ezartzea beharrezkoa baita, pertsonak gure artean errespetatu gaitezen. Hortaz, zeintzuk dira arauak eta limiteen arteko ezberdintasunak?

### **2.3.3.2. Arauak vs limiteak**

Arauak, eskubideak eta askatasunak errespetatzen dituen jokabideen multzoak dira. Orokorrean, haurren garapenean ezarriak izatean dira pertsona heldu eta edukazio onekoak bilakatzeko asmoarekin sozietatearen aurrean. Hori dela eta, arauak beharrezkoak dira gizartean ordena izateko eta bizikidetasun egoki bat bermatzeko. Aipatzeko da ere, arauak ezarriak ez baldin badira, haurrak, jokabide “txarrak” izaten hasten direla eta hauek, haien garapen integralean eragin negatiboa sortuko zuten. Beraz, arauak, hezkuntza ingurunean zein gizarte ingurunean haurrei jokabide hobeko bat bermatzen laguntzen diete (Ricaurte et al., 2015).

Besteak beste, arauak: “Se tratan de comportamientos sociales aprendidos que garantizan la convivencia. Cuando cumplimos las normas, no pasa nada: pero si nos las saltamos podemos provocar algún conflicto o que se nos considere “mal educados” (Albaladejo-Mur, 2012: Ricaurte et al., 2015 testuan aipatuta).

Aldiz, limiteak “Fijar la extensión que pueden tener la autoridad o los derechos y facultades de alguien” kontzeptua biltzen dute (Real Academia Español, s.f., Limitar). Hots, esanenezake, limiteak arauen barruan kokatzen direla. Arauak barneratzeko modu bat dira eta orokorrean, haurrek ez dituzte barneratuta. Zigorrek ezartzen zaizkieten bezala, sariak ere ematen zaizkietelako. Besteak beste, limiteak, orekaren jolasa bezala ulertu behar dira. Haiei esker, haurrak, denboraren bidez barneratu egiten dituztelako norma eta balore batzuk, etorkizunera begira, erreferente gisa erabiliko dituztenak (Ricaurte et al., 2015).

Arestian esan bezala, hurrek oraindik ez dituzte limiteen esanahiak barneratuta eta horren aurrean, estrategia ezberdinak erabiltzen dituzte haien jokabidearen aurreko ondorioak zeintzuk izango diren jakiteko asmoarekin. Hau da, akzio ezberdinak aurrera eramaten dituzte ondorioa zein izango den frogatzeko (Ricaurte et al., 2015). Hori dela eta, limiteak berebiziko garrantzia dute eta barnerapena garatzeko ezinbestekoa da hasieratik argi ezartzea. Honela, hurrak argiago izango baitu zer egin dezakeen eta zer ez. Baita ere, haren jokabidearen aurreko ondorioak zeintzuk izango diren.

Hori bai, ezin dugu ahaztu behar limiteak modu egoki eta lasai batean ezartzea oso garrantzitsua dela. Honen arabera, hurrengan konfiantza edo beldurra eragingo baitugu. Hain zuzen, limiteak oihu eginez ezartzen baldin badira, hurrak beldurra izango du. Aldiz, limiteak modu lasai batean komunikatzen baldin badira, hurrak konfiantza izango du. Honek ere, limiteen aurreko ulermena erraztuz.

### **2.3.3.3. Konfiantza vs beldurra**

Hasteko, konfiantzaz eta beldurraz hitz egiten dugunean, emozioez ere ari gara berbetan. Konfiantza, pertsona edo zerbaitenganako ematen den itxaropena baita (Real Academia Española, s.f., Confianza), eta beldurra, arrisku baten aurrean ematen den larritasuna da, erreala edo irudizkoa izan daitekeena (Real Academia Española, s.f., Miedo).

Beldurra, hasieratik egon da gizateriaren baitan, giza izaeraren zati bat baita. Hain zuzen, gizakiaren biziraupena ahalbidetzen duen defentsa-mekanismo bat da, eta, beraz, egokitze-funtzioa du. Beldurrari esker, gizakia erne egoteko gaitasuna du larritasuna adierazten duten egoeren aurrean (Ávila y Fullana, 2016; Hurtado, 2015; Nievas, 2014; Cruz, 2021 testuan aipatuta).

Bestalde, hurren beldurrak bizitzako lehen urtetik agertzen dira gutxi gorabehera, eta horien artean, abandonuaren, iluntasunaren, heriotzaren edo ezezagunekiko beldurra aurkitzen dira. Emozio guztiak bezala, garrantzitsua da haien ezagutza eta adierazpena ikastea. Honen aurrean, irakasleak rol garrantzitsua du (Cruz, 2021).

Konfiantzaren kasuan, banaka ikusi beharrean, taldeen arteko harreman-modu gisa ikusi behar da. Konfiantzak, harreman pertsonalak indartu egiten ditu, erantzun emozional bat proiektatuz ikaskuntza-jardueren uneetan. Gainera, hurrek modu esanguratsu batean aurrera jarraitu ahal izateko, irakaslearen konfiantza beharrezkoa dute. Honek, laguntza emanez galdu egiten diren une orotan eta bideratzen saiatzen.

Horretarako ere, beharrezkoa da haien testuinguru emozionalean zein munduan lanketa bat egitea (Fuster Guillen et al., 2018).

Hori dela eta, irakaslearen papera ezinbestekoa da ikasleek haien buruarekiko autokontzeptu egoki bat edukitzeko zein hezkuntza erronkei aurre egin ahal izateko. Hala ere, kontu handia izan behar da itxaropenen aurrean. Hasieran esan bezala, konfiantza izateak, pertsona batengan itxaropenak ezartzea baitakar, eta horren aurrean, errendimenduan eragina sortu ahal dugu; ikaslearen autoestimuan, jokaeretan, motibazioan zein beste motatako arloetan besteak beste. Hain zuzen, eragin horrek “Efecto Pigmalion deritzo”, eta pertsona batek, beste pertsonarengan duen itxaropenak haren errendimenduan eragina izan dezakeela esan nahi du. Hori dela eta, irakasle baten itxaropenak beharrezkoak dira ikaslearen etorkizuneko errendimendu eta jokaerarentzako. Baita ere, haren ikaskuntza prozesuaren motibaziorako (Solís García y Borja González, 2017).

Efektu honek beraz, norabide bikoitza du, eta ikasle bati konfiantza ematearen zein haren lanarekiko itxaropen-arrakastatsiak izatearen garrantziaren aurreko jabetza izatera behartzen gaitu. Honela, harengan ezarri diren itxaropenak lortu ditzan. Bestela, haren gaitasunak gutxiesteak eragiten dituen ondorio kaltegarriak esperimendatuko genituzke (Baños, 2010: Solís García y Borja González, 2017 testuan aipatuta).

Orain arte esandakoa kontuan hartuz, irakaslearen baliabideen eta alderdi emozionalaren garrantzia ezinbestekoa da. Aipatutako datuak berrikusiz, ondorio kaltegarrienak haurren autokontzeptuarekin lotuta baitaude. Honek, haien alderdi emozionalean guztiz eraginez.

### **2.3.4. Alderdi emozionala: egonkortasunaren giltzarri**

#### **2.3.4.1. Emozioen garrantzia haurren garapenean**

Orain arte esan bezala, hurrekin afektuzko harreman sendo eta seguru zein osasuntsu bat garatu ahal izateko, emozioak ezinbesteko papera dute; eta emozioetan zein sentimenduetan oinarritzen den hezkuntza bat izateak, bizitza zoriontsu baten bermea da (Valero, 2009: Martínez-Fernández y García-Montero, 2016 testuan aipatuta).

Azken batean, eskola edo bizitza infernutzat edo zoriontsutzat hartzeko, bertan bizitako emozioetan oinarritzen gara, hauek, eragin osoa izanik. Horregatik, inteligentzia emozionalaren aurreko garapena bermatzea ezinbestekoa da, funtsezkoa



faktorea delako pertsona gisa hezteko zein zorientsu izateko (Martínez-Fernández y García-Montero, 2016)

Gainera, konpetentzia emozionalak bermatzeak, inteligentzia emozionala eskuratzeko aukera ematez gain, neurozientzia, psikologia positiboa, inteligentzia multipleak eta beste mota batzuetako aspektuak, besteak beste, autoestimua, ongizatea, enpatia... bezalakoak, eskuratzeko aukera ematen digu (Nages-Soler et al., 2021).

Hots, inteligentzia emozionalarekin jaiotzen ez garela jakinik (bizitzaren zehar izandako erlazioen bitartez eskuratzen joaten den gaitasuna baita), hezkuntza arloan ezartzea esanguratsua izango litzateke. Orokorrean, hezkuntza jakinduriaren transmisioan eta gaitasun logiko-matematikoak, linguistikoak... eskuratzean oinarritzen baita, baina gaur egun, soilik alderdi hauek ez dira nahikoak; ez baitute hezkuntza integral bat bermatzen, non ikasleak XXI.mendeko bizitzak ezarritako erronkei aurre egiteko prest dauden (Michael et al. 2021).

Bestalde, baieztatu daiteke erregulazio afektiboa ohitura, norma eta baloreetan oinarritzen dela haurrengan garapen integral egoki bat bermatzeko. Beraz, desberdintasunen aurrean, ezinbestekoa da baloreetan oinarrituta dagoen hezkuntza bat aurrera eramatea eta lotura egitea jakintza zein esperientzia afektiboaren artean (Ricaurte et al., 2015).

Amaitzeko, emozioak, besteekin harremantzeko aukerak eskaintzen dizkigute, eta gure jokaeren zein egunerokotasunean hartzen ditugun erabakien motorrak dira (Martínez y Quintero-mejía, 2016). Horrez gainera, haurrek, emozioak bizi eta sentitu egiten dituzten arren, hasiera batean ez dituzte ulertzen, baina egoera hau Haur Hezkuntzan aldatzen joango da. Hain zuzen, 2 urterekin haurrak emozioak hautematen hasiko dira eta 3 urterekin, identifikatzen (Ridgeway et al., 1985).

Hautemate eta identifikazio prozesu horretan, irakaslearen laguntza ezinbestekoa da, eta laguntza hori eraginkorra izateko, irakasleek formakuntza zehatz bat beharrezkoa dute. Besteak beste, alderdi emozionala edota konpetentzia, zein inteligentzia emozionalaren aurrekoa. Hurrei, beharrezkoa duten babesak zein irakaskuntza eman ahal izateko. Azkenean, irakasleak formatzea, hurrekin formazio horretan ikasitakoa praktikan jartzea bezain besteko garrantzitsua da.

## 2.4. Formakuntza: haurra etengabeko ikaskuntzan, eta, irakaslea?

Zein da Haur Hezkuntzako irakasleek jasotzen duten formakuntza/prestakuntza kompetentzia emozionalari dagokionez?

Irakasleek kompetentzia emozionalen aurreko jasotzen duten formakuntzaren berri jakiteko, egindako zenbait ikerketa ditugu adibide. Alde batetik, 2015.urtean, Murtziako Unibertsitate Katolikoan Haur Hezkuntzako gradua ikasten ari ziren ikasleei, azterka bat egin zieten haien autorrealizazio eta hazkunde pertsonala ebaluatuz. Helburua, haien kompetentzia emozionalen maila zein zen jakitea izanik. Horretarako, AURE (Cuestionario de Autoconcepto y Realización) deituriko inkesta bat erabili zuten. Guztira, 183 ikasleek hartu zuten parte, lehenengo, bigarren, hirugarren zein laugarren mailakoak besteak beste, %62.7a emakumeak izanik eta %37.3a gizonezkoak izanik (Palomino Pegalajar y Hernáez López, 2015).

Beste alde batetik, 2010 eta 2021 urte bitartean, Burgos eta Miranda de Ebroko CFIE (Centro de formación y iniciativas de empleo) zentroetan, eskaintzen den hezkuntza emozionalaren aurreko formakuntzen inguruko analisia egin zen (Llamazares Escolar et al., 2017). Amaitzeko, "La construcción de la identidad docente en educación infantil" (2017) artikuluan, metodo biografiko-narratiboaren bidez, hau da, Catuxaren bizitzaren istorioa erdigunea izanik, Haur Hezkuntzako irakasleen nortasunaren eraikuntzaren azterketa bat egin da. Eraikuntza hau, nola ematen denaren berri jakin ahal izateko, eta bizitzaren arlo pertsonalak, profesionalak, eta hezkuntza erreformak, eraikuntza horretan duten eragina ere aztertzeke asmoarekin.

Hiru ikerketa hauen emaitzak azterturik, datuak nahiko esanguratsuak dira. Orokorrean, irakasleek eskuratuta dituzten kompetentzia emozionalak egokiak baitira, eta nabaria da graduaren zehar jasotzen duten formakuntzari esker emandako datuak direla. Esan genezake, nabaria dela irakasleentzako inteligentzia emozionala haien formakuntzan gakoa dela. Graduaren esker kompetentziak eskuratzeaz gain, inteligentzia emozionalari dagokion formakuntzen eskaerak egiten baitituzte.

Eskakizun horiek, hezkuntza arloko profesionalak azkeneko 5 urteetan hirukoiztu egin dituzte. Gero eta eskakizun anitzagoak eginez eta nabarmentzekoa da ere, Haur Hezkuntzako irakasleentzat zuzenduta daudela formakuntza gehienak. Honek, argi adieraziz zer nolako garrantzia duen ziklo hauetan inteligentzia emozionalaren aurreko formakuntza eskaintzea, ikasleen garapen sozial eta kognitiborako ezinbestekoak baitira (Llamazares Escolar et al., 2017).

Honen aurrean, Catuxaren istorioa dugu aztergai. Haur Hezkuntzako erretiratuta dagoen irakaslea da eta 40 urtez aritu da lanean. Haren bizitzaren ibilbidea oinarri hartuz, beste hainbat datu onuragarri bildu dira. Hain zuzen, ondorioztatu da irakaslearen nortasunaren eraikuntzan izugarrizko lotura eta eragina duela inguratzen dion guztiak. Besteak beste, hiru eragin puntuak: soziokulturala/politikoa, lantokia edo gizarte eragina eta eragin pertsonalak (Sarceda, 2017). Hots, formakuntza ez da soilik formazioaren bitartez jasotzen, bizitzak eta esperientzia propioak ere, ezagutzak eskaintzen dizkigute. Besteak beste, irakaslea izatearen gakoa, bizitzaren irakaslea izatean datza (Riquelme, 2020). Beraz, irakasleak ere, haurrak bezala, etengabeko makuntzan daudela esan genezake.

Ilido beretik, formakuntzari esker, irakasleak prozesu emozionalak eskola-testuinguru jakin batean jokatzen ari diren paperaren gakoak erraztasun handiagoz aurkitzera lagundu dezake. Gainera, irakasleak, garrantzitsutzat hartzen dute garapen emozionalaren aurreko zainketa eta ulertzen dute ezinbesteko paper bat dutela hortan. Aitzitik, kontrako ikuspuntuak ere badaude. Orokorrean irakasleak aspektu emozionalak eskola-testuinguru batean lantzea garrantzitsua dela pentsatzen duten arren, asko ez dira prest ikusten. Gehiengoak baieztatzen du beharrezko formakuntza jaso ez dutela hezkuntza emozionala aurrera eraman ahal izateko. Gainera, prestakuntza-premia hori ez da islatzen irakasleen hasierako prestakuntza curriculumetan (Ortega, 2017).

Laburbilduz, kontrako iritziak dauden arren, ikerketa guztiak oinarri hartuz, emaitzak onuragarriak dira. Gero eta irakasle gehiagok hezkuntza emozionalaren aurreko formakuntzaren eskakizunak egiten dituzte, hasiera batean aurre egiteko prest ikusten ez diren arren, eta haren behararen kontzientzia zabala dute. Horrek, haren lanketa erraztuz eta gaiaren inguruan jakiteko grina sortuz.

### **3. HELBURUA**

Ikerketa-lan honen gaia zein den ikusirik: “Eta gu zer? Irakaslearen rola garrantziaren azterketa, haurren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan”; lan honen helburu nagusia, irakaslearen rola haurren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan betetzen duen garrantzia ikusaraztea da. Aldi berean, rol honek ikaskuntza prozesu horretan nola eragiten duen, edo eragin dezakeen azterketaren saiakera egitea, eta azkenik, aurkeztea.

## **4. MARKO METODOLOGIKOA**

### **4.1. Esperientziaren testuingurua eta garapena**

2020ko uztailaren 2an izandako gertakizun batek, nire bizitza guztiz aldatu zuen. Nire osasun mentala okertzen hasi zen eta egunerokotasunean normaltasun osoz aurrera eramaten nituen ekintzak, ezinezkoak bilakatu ziren. Honek, gerturazten ninduten pertsona guztiengan larritasuna eragin zuen, eta nire arlo pertsonal zein akademikoan, ondorioak izan zituen ere. Hain zuzen, 2021eko kurtsoa nire urterik zailena bilakatu zen eta etxetik urrun egoteak, are gehiago zaildu zuen egoerari aurre egin beharra. Besteak beste, inoiz gertatu ez bezala, irakasgai bat ez nuen gainditu eta ondorio bezala, laugarren mailarako gelditu zitzaidan.

Betidanik oso ikasle arduratsua, perfekzionista, langilea eta kalifikazio onekoa izan naiz. Gradua hasi nuen momentutik, irakasgai guztiak gaindituak izan ditut, baina hirugarren maila ezberdina izan zen. Arestian esan bezala, urte zail batean aurkitzen nintzen eta horrek, izugarri oztopatu zidan nire egunerokotasunarekin normaltasunez jarraitzeak. Gainera, orain arte izandako espediente ona mantentzearen izugarritzko presioa nuen niregan, eta jakina den bezala, horrek ez zidan batere laguntzen.

Esperientzia honen eraginez, bizitzarekiko nuen begirada izugarri aldatu zen, eta ohartu nintzen zer nolako garrantzitsua den gu geu ondo aurkitzea, bizitzak eskatzen gaituen betebeharrak horiei aurre egin ahal izateko, zein bizitza berari aurre egin ahal izateko. Honek ere, graduarekiko nuen ikuspuntua izugarri aldatu zidan. Aurkitzen nintzen egoerak, irakaslearen profilaren barrenean sakontzeko aukera eman zidan eta horrez gainera, honen inguruan gehiago sakontzeko grina piztu zidan. Hain zuzen, ondorengo galderak egiten hasi nintzen nire buruari: esperientzia honek pertsona gisa bizitzari aurre egiteko zailtasunak ekartzen ari baitzaizkit, irakasle izango banintz, nola egingo nioen aurre egoera honi? Eta nola ahalko nuke motxila hau kanpoan utzi haurren irakaskuntza-ikaskuntzan eragin gabe, hau da, haien prozesua eragotzi gabe?

Galdera hauen esker, GRALa nondik bideratu nahi nuen gero eta argiago nuen. Baita ere, ohartu nintzen, graduaren zehar, haurraren ongizatean eta haren irakaskuntza-ikaskuntza prozesua modu esanguratsu batean bermatzeko teknikak izugarri ikasten ditugula. Baita ere, haren garapen integrala nola lortu, baina irakaslearen ongizatean inolako geldialdirik ez da egiten. Honek, hausnarketa sakon bat egitera eraman ninduen eta ondorioztatu nuen, haurraren ongizatean geldialdia egitea berebiziko garrantzitsua den bezala, irakaslearen ongizatean geldialdia egitea

ere beharrezkoa dela, zeren: Nola zainduko ditugu haurrak gure burua zaintzen ez baldin badakigu?

Azken batean, denok dakigu irakaslean papera ezinbestekoa dela haurraren ikaskuntza prozesuan. Irakaslea, haurraren erreferente eta bidelagun baita, eta haurrak, konpetentziak eskuratu ahal izateko, lehenik irakasleak eskuratuta izan behar ditu. Hots, gero eta argiagoa nuen nondik bideratu nahi nuen nire GRALa.

Aipatzekoa da ere, bizitzen ari nintzen egoerak gainditzen zidanez eta nire familiaren larritasun egoera areagotzen hasi zenez, laguntza profesionala eskaini zidatela. Horren ostean, aurre egiten hasi nintzen gerturatzen zidaten mamuei.

Lanketa honek, gaiarekiko nuen interesa areagotu egin zuen, hau da, ohartu nintzen izugarritzko interesa nuela arlo psikologiari dagokionez, batez ere alderdi emozionalean, eta ikasten ari nintzen guzti hori GRALean islatu nahi nuen. Nire esperientzia propioa aitzakia gisa hartuz, hezkuntza alorrean praktikan jarri nahi nuen ikasten ari nintzen guzti hori. Aldi berean, ohartu nintzen irakasleak ere gizakiak garela, eta ikasten ari nintzen horrek nire irakaslearen profila osatzen lagundu zidan. Osaketa horretan, gero eta argiago nuen zer motatako irakaslea izan nahi nuen; haurrekin zer nolako harremanak sortu nahiko nituen; eskola, familia eta gurasoekin zer nolako harremana izan nahiko nuen...

Horrez gainera, graduaren zehar ikasi ez dudan hori edo faltan bota dudanaren aurreko geldialdia egiteko aukera eman zidan ere. Hortaz, GRALaren gaien eskaintza atera bezain pronto, zalantzarik gabe banekin zer motatako gaiak landu nahi nituen. Orain arte esan bezala, arlo psikologikoarekin zein alderdi emozionalarekin lotutakoak. Hori dela eta, Iratxe Antonio Agirre irakasleak eskainitako gaiak ikustera abiatu nintzen laster batean. Iratxe, graduko lehenengo zein bigarren mailan psikologiako irakasle bezala izan baitnuen. Hots, hark eskainitako gaiak ikustera abiatu nintzen eta "Emozioen lanketa eskolan" gaiarekin topatu nintzen.

Hasiera batean, gai hori izan zen nire lehenengo aukeraketa. Aldiz, bigarren aukeraketa bezala, "Irakaslegoaren konpetentzia emozionalak" gaia jarri nuen, Imanol Santamaría-Goicuriak eskainia. Imanol, arlo psikologian ez izan arren, graduko lehenengo eta bigarren mailan irakasle bezala izan nuen ere. Hasieratik, haren irakasteko moduak arreta izugarri deitu zidan, eta banekin haren lan egiteko modua zela eta, ongi moldatuko ginela GRALaren zehar. Hortaz, nire lehenengo aukeraketa "Emozioen lanketa eskolan" izan zen arren, ez zen ezarri zitzaidan gaia, dagoeneko

gaia hartuta baitzegoen. Hots, bigarren aukeraketa esleitu zitzaidan: “Irakaslegoaren kompetentzia emozionalak”.

Gaur egun, atzera buelta eginda, zintzotasun osoz esan dezaket eskertzen dudala lehenengo aukeraketa ezarri ez izana. Azken batean, lanaren ikuspegia oinarri hartuz, bigarren aukeraketak nire helburuarekin gehiago bat egiten duela uste baitut. Gai honetan, irakaslearen profila ageri baita, eta aldiz, lehenengo aukeraketan, emozioak dira oinarri. Beraz, guztiz ados nago aurrera eramandako gaiarekin.

## **4.2. Ikerketarako erabiliko den metodologia**

Ikerketa-lan honen zehar aurrera eramango den metodologia, ikerketa kualitatiboa deiturikoa izango da. Besteak beste, lortutako emaitzak bizitako esperientzia pertsonaletik aterakoak izango direnez, lan subjektibo baten aurrean aurkituko gara. Gehiago zehazte aldera, ikerketa kualitatiboaren barrenean aurkitzen den ikerketa autoetnografiko batean oinarrituko naiz. Hori dela eta, bi definizio hauen aurreko azalpenak emango ditut jarraian, lanaren zehar hobeto kokatze aldera.

### **4.2.1. Ikerketa Kualitatiboa**

Ikerketa kualitatiboa edo metodologia kualitatiboa, ikerketa metodo bat da gehienbat gizarte zientzietan erabilia izaten dena. Printzipio teorikoetan oinarritutako metodologiaren bidez garatzen dena, eta helburu nagusia gertakariak ulergarriak bilakatzea duena (Guerrero Bejarano, 2016).

Honek pentsaraztera eramaten gaitu ez dela soilik tresna zientifikoen kontu bat, baizik eta esleipen teoriko bat, aurretiko posizioetan ezarria izaten dena, ikertzailearen beraren xedapen pertsonaletan oinarritua hain zuzen. Beraz, ikerketa kualitatiboa ahozko erregistroekin aritzen da lanean: parte hartzaileen transkripzioak; grabatuta ez dauden elkarrizketen oroipenak; ikertzailea testigu izan den gertakariaren jasoketak... Eta ikertzailearen hausnarketak, balorazioak, datuen aurreko analisiak eta azkenik, konklusioak dira eragile (León y Montero, 2015).

Beste modu batean esanda, ikerketa kualitatiboa, elkarrizketak, narrazioak, oharrak, grabazioak, audio-transkripzioak, bideo-transkripzioak, kasetak, mota guztietako erregistro idatziak, argazkiak edota filmak zein artefaktuak bezalako behaketen bidez ateratzen diren deskripzioen ikerketa-diseinuen kategoria bat bezala ulertu daiteke (Herrera, 2017).

Horrez gainera, ikerketa kualitatiboa hezkuntza alorrean enfokatzen baldin badugu, ikerketa modu malgua, sistematikoa eta kritikoa da, hezkuntza eragileen bidez ematen dena. Azken batean, ez da gauza bera pertsonekin edo objektuekin elkarreragitea. Hots, ikerlari kualitatiboa, gizarte eragile bat da, ikertuekin, hau da, hezkuntza eragileekin parte hartzen duena eta elkarlanean aritzen dena. Azarna pedagogikoetatik abiatuta, sistemaren etengabeko hobekuntzak ulertzeko, interpretatzeko, kritikatzeko eta gauzatzeko asmoarekin (Cerrón Rojas, 2019).

Aipatzekoa da ere, ikerketa kualitatiboak hainbat ezaugarri dituela bere baitan eta horien artean, ondorengoak aurkitzen dira: parte hartzaileen ikuspegitik hasten da haien aniztasuna ulertuz; fenomenoaren barrenetik ulertzea bilatzen da; ebidentzia empirikoa ahozkotatasunaren bidez adierazia izaten da normalean; fenomenoak osorik eta beren testuinguru naturalean aztertzen dira; ikertzailearen hausnarketak kontuan hartzen dira haren esperientziatik oinarrituta eta prozesuaren beste berme batzuk erabiltzen dira (León y Montero, 2015).

Laburbilduz, ikerketa kualitatiboa ikerketa eremu bat da non disziplinak, alorrak eta materialak gurutzatu egiten diren; terminoiez, kontzeptuez, eta suposizioez elkarri lotuta dagoen familia konplexua da, terminoa inguratzen dutenak (Denzin y Lincoln, 2018). Ikasleen, irakasleen, eta hezkuntza-eragileen prestakuntzan sortzen ari den gizarte-errealitatearen egiturari, etengabeko hobekuntzak proposatzeko eta aplikatzeko aukera eskaintzen du. Baita ere, ezagutzak, ideiak, ekintzak eta materialak zuzentzeko, aldatzeko, gainditzeko zein berrekiteko aukera. Gainera, parte hartzaileei, arazoari buruz ikertzeko aukera emateaz gain, arazoaren aurreko irtenbideak bilatzeko aukera eta sortzen ari diren aukerei buruzko ikerketak egiteko konpromezua ematen die ere. Hots, metodologia hau aurrera eramaten duten edozein irakasleek, behatzeko, deskribatzeko, analizatzeko, interpretatzeko, ulertzeko, eta muga historikoak gainditzeko beharra ulertarazteko gai izango dira (Cerrón Rojas, 2019).

#### **4.2.1.1. Autoetnografia**

Metodo autoetnografikoak, funtsean, onartzen du ikerlaria bizi den munduaren parte dela. Lotura bat ematen da pertsonala eta kulturala denaren artean, eta autoetnografiaren bidez, munduari gure esperientzia propio horiek komunikatzen dizkiogu, hau da, errealitatearekin partekatzen ditugu, eta ikusarazi egiten ditugu besteen begiradetan. Hots, ikerketa autoetnografikoan, besteengan ireki egiten gara ulertuz munduaren parte garela. Baita ere, gizaki bakoitzak sozietate eta kultura sortu

egiten duela ulertzen da, eta horren bidez, haren identitatea garatzen duela (Muños Guerrero, 2017).

Beraz, alderdi pertsonala eta esperientzuala kontuan hartu nahi baldin baditugu, hauek ingurunearekin konektatuz, tresna berezi batetaz ari gara berbetan: autoetnografia. Autoetnografia, etnografiatik datorren metodo bat da, non niak paper nagusia duen. Ikerketa narratibo modu gisa aurkezten da, non ikertzailea, ikertutakoa eta narratzailea, bat egiten duten fenomeno edo arazo sozial zabalago bat azeleratu nahian. Bestek beste, ariketa bat bezala ulertu daiteke non idazten duen pertsonak, hau da, ikertzailea, guztiz murgilduta dagoen eta haren esperientzia pertsonala eskaintzen duen bitarteko gisa, hausnartu nahi duenaren aurreko interpretazioak berak eginez (Mayor Montagud, 2015).

Laburbilduz, autoetnografia ikerketa eta idazketa ikuspegi bat da, esperientzia pertsonala (auto) sistematikoki deskribatu eta aztertu nahi duena (grafia), esperientzia kulturala ulertzeko asmoarekin (etno). Horrela, autoetnografia, aldi berean prozesu eta produktua izanik (Ellis, 2015).

#### **4.2.2. Ikerketarako datuen lorpena eta trataera**

Orain arte aipatzen joan naizen bezala, ikerketarako nire esperientzia propioa izan da oinarri. Azkenean, erabiliko dudan metodologia autoetnografia izango denez, nire esperientzia propioak emaitzen erantzule izango dira. Hots, izandako esperientzia propio horietan, Practicum IIIaren zehar aurrera eramandako egunerokoa zein irakasleei, eskolako psikologari, eta haurrei egindako elkarrizketak aurkitzen dira.

Egunerokoa eta elkarrizketak aurrera eramatearen arrazoiak anitzak izan dira, baina gehienbat, nire hausnarketak eta ahotsa indartzeko erabili ditut. Azken batean, oraindik ere aditua ez naizenez, nire hitzak ez du bezain besteko sinesgarritasun zein indarra. Hori dela eta, nire hausnarketak nabarmentzeko asmoarekin, hezkuntza alorrean guztiz murgilduta dauden, esperientzia anitza duten, eta nire gaien lagungarri izan ahal diren irakasle zein adituen hitzaz baliatu naiz. Baita ere, hiru hilabetetan egindako Practicumeko egunerokoaz. Honela, nire emaitzetan eta ondorioetan lagungarri izan daitezten.

Beraz, Practicum III aren egonaldiaren zehar, irakasle izateaz gain, ikertzaile bezala aritu naiz ere. Egunerokoaren bidez egindako datuen bilketak, behaketa jarrai eta sistematiko bat aurrera eramatea eskatzen baitzidan, zenbait ohar anekdotiko biltzearekin batera; eta elkarrizketak egiterako orduan, gaiaren aurretiko bilaketa sakon



bat egitea ezinbestekoa nuen, galderak ondo bideratzeko eta erantzun esanguratsuak lortu ahal izateko. Funtsean, datuen bilketa, finkatuta dudan helburua lortzeko zein nire printzipio pedagogikoak eta ikerketa-lana indartzeko asmoarekin egin da.

#### **4.2.2.1. Datuak biltzeko erabili ditudan tresnak**

Ikerketa-lan bat zientifikoki baliozkotzat hartzen da, egiazta daitekeen informazioan oinarritzen baldin bada, eta formulatutako hipotesiarekin erantzuna ematen baldin badio frogatu nahi den horri. Horretarako, ezinbestekoa da datuen bilketa planifikatu bat egitea, eta helburuak zehaztuta edukitzea (Torres, Salazar y Paz, 2019).

Horren ildotik, aurreko puntuan esan bezala, datuak biltzeko erabiliko ditudan tresnen artean, praktikaldiaren egonaldiaren zehar aurrera eramandako egunerokoa (ohar anekdotiko eta behaketa jarrai/sistematiko baten bidez lagundua izan dena), eta, egindako elkarrizketak aurkitzen dira.

Egunerokoa, ikertzailearen egunkaria bezala ezagutua dena ere, ikerketa kualitatiboetan datuen bilketa zein erregistrarako tresna ezin hobea da. Esperientziak sistematizatzea ahalbideratzen duen tresnatzat hartu daiteke, ondoren emaitzak aztertzeko. Gainera, ikerketa baten hasieratik erabili daiteke, oharrak modu antolatut batean hartuz: data, tokia, jardueraren izena, parte hartzaileak, hausnarketak... bezalako garrantzitsutzat hartzen diren beste hainbat alderdirekin batera. Aldiz, elkarrizketak, ikerketa kualitatiboan, ikertzailearen eta elkarrizketatuaren arteko aurrez aurreko topaketari egiten dio erreferentzia, helburu bezala elkarrizketatuaren iritzia eta ikuspuntua ezagutzea dutenak. Haren bizitzaren zehar izandako esperientziaren eta bititukoaren aurre (Sanchez, Fernandez y Diaz, 2021).

## **5. EMAITZAK**

Orain arte maiz esan dudan bezala, ikerketa-lan hau aurrera eraman ahal izateko, bi izan dira datuak lortzeko erabili ditudan tresnak; alde batetik, Practicum III aren zehar aurrera eramandako egunerokoa, nire sentimendu eta bizipenetan oinarrituta dagoena; eta, bestetik, Practicum III ko eskolako hurrei, irakasle, eta psikologari egindako elkarrizketak, hau da, haien testigantzak. Guztira, hamalau izan dira aurrera eramandako elkarrizketak eta egunerokoa hamaika astekoa da (eranskinetan aztergai, 44-109.orri).

Datuen bilketa jorratzeko erabili ditudan bi tresnak ezberdinak diren arren, bietan landutako gaiak erlazionatuta daude. Hots, emaitzak lau kategoria ezberdinetan

banatuta daude, hain zuzen, elkarrizketak egiteko erabilitako txantiloian ageri diren alderdietan inspiratuz (eranskinetan aztergai, 41-43.orr). Gainera, alderdietako batzuk bere baitan azpi atalak izanik eta elkarlotuta egonik.

Besterik gabe, emaitzak jasotzeko, lehenik egindako elkarrizketak aztertu dira, parte hartzaileen testigantzak transkripzioetatik ateraz, eta ondoren, egunerokotik lortutako informazioaren bilketaren sintesi bat egin da, idatzitakoaren amaieran hitz gakoak ezarriz. Guzti hau, ezarritako helburua erantzuteko asmoarekin zein nire ahotsari indarra emateko beharrezkoak diren ebidentziak jasotzeko intentzioarekin.

## **5.1. Egunerokoari eta elkarrizketei esker ateratako emaitzak**

Aipatzekoa da, prozesu honi esker nire irakaslearen rolean eta printzipio pedagogikoetan geldialdia egiteko aukera izan dudala. Nire irakaslearen rola nondik bideratu nahi dudan gero eta argiago izanik, eta zenbait emozio berpiztuz. Analisia egiteko garaian, berriro ere egunerokoa irakurtzeak eta idatzitakoaren aurreko sintesi bat egiteak, zein elkarrizketak berriro ere entzuteak, emozioak azaleratu baitaizkit.

Beraz, oraingoan, kategoriei dagokionez, ondorengoak dira maila nagusien banaketa: (1) irakaslearen rola garrantzia; (2) haurra: ahotsa ez izatetik, gehiegizko hitza ematera; (3) irakasle-ikasle arteko harremana eta ikaskuntzan eragina; (4) alderdi emozionalaren garrantzia, eta azkenik, (5) esperientziak niregan izandako eragina: itzultzaile emozionala.

Emaitzak aztertzen hasi baino lehen, eranskinetan aztergai dagoen kodigoen legendaren (44.orr) aurkezpen txiki bat egitea beharrezkoa ikusten dut. Aipatzekoa da, hiru alderdi biltzen dituela: elkarrizketak, elkarrizketatuak eta elkarrizketatzailea. Arestian esan bezala, 14 izan dira aurrera eramandako elkarrizketak, eta elkarrizketatuak eskolako haurrak, irakasleak, eta psikologoa izan dira; elkarrizketatzailea aldiz, ni neu izan naiz. Hots, kodigoen legenda honen bidez, testigantzen identifikazioa erraztea dut helburu.

### **5.1.1. Irakaslearen rola garrantzia**

#### **5.1.1.1. Gizarteak irakaslearen rolean izandako eragina**

COVID-19ak gizartean aro berri bat sortu duen bezala, irakaslearen lanbidean eragina izan du ere, eta harrigarria dirudien arren, eragin hori positiboa izan da. Gaixotasun honek eragindako geldialdiaren esker, etxeetan irakaslearen lanbidea gehiago baloratzen hasi baita:

*“Ni ados nago esan duenarekin, baina kuriosoa iruditzen zait em... beno garai baten irakaslea zan zentroa, eta bera zen em... azalpenak ematen zituena, bera em... jakinduria edo irakasleak zeukan. Gero hasi zirenen, lehen esan dudan bezala, teknologiak, goutzen naiz planteatzen zala, bueno ba agian irakasle bat igual ez dala, irakaslerik ez dala behar, hori ere planteatu zan, ze karo, hor dago informazio guztia, em... teknologia hor dago ba orduan, iritsiko da garai bat irakaslerik izango ez denik, agian. Eta bueno, niretzat pozgarria izan da, nik nire iritziz, COVID dela eta, baloratu da gehiago irakaslearen papera. Ze ai giñen, hori, bere autoridadea kentzen, hainbeste ez dala behar, informazioa oain lortzen dute dena teknologiarekin, ordun bueno, gu bigarren plano batean geundela. Egia da lehen protagonismo gehiegi genuela, baina COVIDekin, nik uste det, ikusi dala, nola etxetik lanean eta, pobrea dala, osea behar dutela erlazioa besteekin eta baita ere irakaslea. Irakasleak, noski baietz em... lagundu behar dula ba umeak bideratzen, baño ez bakarrik hori, baita ere heziketa. Ume baten zailtasunak edo, em... bueno, hor egon behar du erne, zailtasunak ateratzeko, ba hori bideratzeko, ze laguntza mota behar duen, em... edo edozer, bere heziketa orokorrean irakasleak hor egon behar du. Ez bakarrik edukiekin, baizik eta pertsona gisa ere bai”*

(E:13 / MR).

Hots, sortzen ari den paradigma berri bat, hezkuntza birtuala hain zuzen, irakaslearen lanbidea etengabeko aldaketan dagoela baieztatzen digu, gizarteak eskatutako beharrei erantzunez:

*“Gizartea aldatzen ari da, denbora guztian, eskola gizarteak eragiten du eta gu ere aldatu behar dugu”* (E:12 / IB).

Azken batean, irakaslearen lanbidea, gizarteari egokituta, ikasle talde bakoitzaren behar bereziei erantzuteko prest egotea da, gorakadarekin barne (Hernández Torres, 2018). Irakaslea beraz, gizartearekin batera etengabeko aldaketan dago eta ezin dugu eskatu irakasleak baloratuak izatea, lehenik gizartean haren garrantziaren aurreko kontzientziazioa pizten ez bada. Hortik abiatuta, hau da, gizartetik abiatuta, aldaketak ematen baitira, eta horren adierazgarri COVID-19arekin gertatutakoa dugu.

#### **5.1.1.2. Autoritatea izatetik, egindakoa zalantzan jartzera**

Arestian esan bezala, gizartea aldatzen doan bezala, irakaslearen lanbidearen aurreko ikuspegia zein haren eginkizuna aldatzen doaz ere, eta aldaketa horien artean, autoritatearena dugu adierazgarri:

*“Gaurkoan, 4 urteko gelan, MR irakasleak gertakizun bat izan du. Harrera momentuan, ama bat gerturatu zaio esanez haren semeak gau txarra pasa duela, eta arrazoia hurak atzo bronka bota omen ziolako izan dela esan dio. Semearekin hitz egin ondoren, gertatutakoa kontatu baitio. MRk horren aurrean, amari azalpen ugari eman behar izan dizkio, ulertu dezan bronka hori nondik zetorren, eta ondoren, atsedendian, gurekin komentatu du ondorengoak: “La figura de autoridad de los profesores hasta que punto es buena?”/“La autoridad tambien tiene limites, no?”*  
(2022ko martxoaren 1a).

Aurreko gertakizunak ondorengoak ulertzera eramaten gaitu: batetik, irakasleak haurrengan sortzen duen eragina eta bestetik, autoritatearen galera. Egoera honetan nabarmentzen baita nola irakasleak, haurraren amari, egindakoaren aurreko azalpenak eman behar dizkion, hura lasai gera daiten. Honela, irakasleak egindakoa zalantzan jarriz eta aldi berean, haren autoritatea kenduz:

*“... erlazioa aldatu egin da, lehen autoridadea zan eta punto eta ez zan kuestionatzen... Eta orain behin eta berriz umeak ohituta daude etxean dena kuestionatzen eta askotan eman behar dituzu arrazoi pilo bat, ba hori, em... eman behar ez direnean, eta horrek energia asko kentzen digu, baina esaten dan bezala, ez da umeen ardura, da, gurasoak ere, askotan ba, em... guri ere, behin baino gehiagotan kentzen digutelako autoridadea...” (E:13/ MR).*

*“Antes si tu hacías algo en el cole, te echaba la bronca el profesor y llegabas a casa y te la echaba tu madre. Ahora llega a casa, seguramente un niño diciendo que le ha echado la bronca el profesor, y va a ir el padre a hablar con el profesor haber porque le has hecho la bronca a mi niño, entonces...” (E:14 / A).*

Beraz, testigantzen ahotsak oinarri hartuz, gaur egunean irakaslearen autoritatea izugarri aldatu da, eta hark egindako lana zalantzan jartzen da, maiz gurasoen aldetik.

### **5.1.1.3. Zein da beraz, irakaslea?**

Galdera honen bidez ematen diot sarrera marko teorikoan irakaslearen atalari, eta jada erantzuna lortu dudala esango nuke. Elkarrizketen bidez, testigantzek hainbat kontzeptu eta definizio eman dizkirate irakaslearen lanbidearen inguruan, haienezako irakaslea zein den esanik. Zehazki, ondorengoak izan da egin dudak bilketa:

*“Haurrentzako jainkoa eta jainkosa. Gu izan behar gera adibide, eredu, hori argi ez baldin badaukagu...” (E:12/ MAR).*

*“Los profesores, es que quiero decir, es que son, super importantes en esta sociedad. Es que casi igual que los médicos. O sea, son iguales de importantes y tienen que ser igual de reconocidos, y, a un médico no se le cuestiona nada, y a un profesor sí; ¿es que tu aquí estas creando vida, sabes? Entonces, ostras, yo, te lo juro, que yo admiro, o sea, después de haber estado en el cole, la labor que hacen los profesores, es que la admiro muchísimo, o sea porque creo que es, uff... es que, es que están creando personas. los profesores marcan un huevo” (E:14/ A).*

*“Neretzako irakaslearen papera da, em... umeari laguntzea em... egoera, edo momentu bakoitzean em... beno, ez zuk nahi dezun lekutik joaten, baizik eta berari entzun eta ikasteko edo interesak izango direnak edo beharrezkoa izango zaiona ikasten joateko, bidea irekitzen, osea, guk jun beharko genuke bere interesak kontutan izanik, eta bere beharrak zeintzuk izango diren badakigunez, neurri baten, ba, bi horiek hartuta, em... laguntzen berari bidea irekitzen. Bai? baino nik ustet azkenean protagonista bera dala. Osea, lortu behar degu beren motibazioa eta berak sentitzen dituen behar horien arabera, guk, bidea irekitzen joatea ” (E:13/ I).*

*“Creo que es vital, porque es el referente, y los niños siguen al referente, entonces, creo que es algo bidireccional o sea él aprende de los niños y se va tener que ir adaptando a las situaciones y obviamente el niño tiene que tener un rol, aparte de protagonista también activo” (E:14 /A).*

Hots, orain arte esan bezala, irakaslea gizartearen zein haurren etengabeko beharrei erantzuten dagoen erreferentea da, haien bidelaguna dena eta haurren ikaskuntzan ezinbesteko papera duena. Besterik gabe, irakaslea izatea gogoeta ekintza bat da, eta haren eragiteko gaitasunak egiten du berezi. Hortaz, irakaslea, hitz batean definitu behar baldin badegu, probokatzailerik dela esan ahal dugu (Vergara 2020, pp.8-9).

### **5.1.2. Haurra: ahotsa ez izatetik, gehiegizko hitza ematera**

Irakaslearen autoritatea gutxitzearen arrazoi nagusietako bat, haurrei gehiegizko ahotsa ematearengatik izan da. Honen bidez, maizago jartzen baita zalantzan irakasleak egindako lana. Beraz, gizartean eta irakaslearen rolean aldaketak eman diren bezala, haurra ez da kanpoan gelditzen. Gaur egungo haurrak, iraganaldiko haurrekin alderatuz, guztiz ezberdinak dira eta aldaketa honen eragilea, familian irakatsitako hezkuntza dela esan ahal dugu:

*“Es que no sé si es tanto lo que es la figura del profesor, sino la educación que se da en casa a los niños, o sea creo que ha cambiado mucho el rol del niño no tanto el rol del profesor, creo que el rol del profesor también, y gracias porque cada vez son, osea se enfoca mucho más en lo que es el aspecto emocional, pero uff, yo creo que es más el niño que lo que es el profesor. En general creo que ha sido un cambio social.... Hay muchas familias donde se les da mucho poder a los niños... entonces... de ahí, que, qué bueno, pues que la disciplina a veces brille por su ausencia” (E:14/A).*

*“...baina bai, egia dela haurrak ere aldatu egin direla, ez da, gaur egungo haur bat eta duela 20 urteko bat, hezkuntza aldetik, etxetik zekarten hezkuntza aldetik, ba ez da iguala ez? etxean ere ez dira gauzak berak lantzen” (E:12/ MAR).*

*“Baina nik uste momentu honetan pasa garela era bat beste aldera, ze nik ustet filtro, etxean ez daude filtroak, ordun nik uler dezaket gu ere ez garela noski perfektoak, eta gauzak egin ditzazkegula em... ba gaizki edo, edo, kontu gehiagokin egin behar ditugula, bañan gertatzen dana da, em... etxera joaten direnean, umeak, eta gauzak kontatzen dituztenean, gurasoak, entzun; eta bueno, umeari lasaitu edo momentu horretan uste dutela egin behar dutena egin beharrean, em... hasten dira galderak egiten nolabait informazioa ateratzeko umeari, baina, ia, pixka bat pentsatzen irakaslea nola atakatu, bai? irakaslearen aurka nola joan. Ordun, em... pixkat, em... nik ustet, em... umeei entzuten zaie bañan entzuten zaie eta nahi ditugu eraman gainera, nahi diegu denarekin arrazoia eman, eta bueno pos, umeak ikasi behar du, ba, gauz, osea, umeak entzun behar ditu, gauzak em... neurri batean. Gurasoak agian hitz egin beharko dute, em... gertatzen den horretaz umearen aurrean izan gabe, eta mantendu zertaraino umeari eman behar diozun arrazoia eta benetan uste badezu irakaslearekin hitz egin behar dezula, ba, zerbaitek ez dulako funtzionatu, agian ez dezu hori dena umearen aurrean esan behar, eta nik ustet gaur egun hori, esaten dala dena modu irekian, eta modu ireki hori ere gurasoei pixka bat...erakutsi beharko litzaieke.... liburua ez daukate eta....” (E:13/ I).*

*“Creo que en muchas ocasiones se les hace muy protagonistas” (E:14/A).*

Besterik gabe, testigantzek esandakoaren esker, ziurtatu daiteke estuki lotuta dagoela haurrei gehiegizko ahotsa ematea, irakaslearen autoritatearen galerarekin; gurasoak, horren arduradunak izanik. Haurrei gehiegizko sinesgarritasuna emateak, haien esku baitago, eta honek, ondorio gisa, irakaslearen lanbidea zalantzan jartzea eramaten du.

### 5.1.2.1. Haurtzaroaren garrantzia eta ongizatea

Haurra, ikerketa-lan honen beste protagonista gisa dugu. Haurtzaroan aurkitzen den izaki gisa identifikatu ahal dugu, eta etapa honek, haren baitan izugarritzko eragina du:

*“Nik uste det haurtzaroa ondo bizitu beharreko fase bat dela, heltzeko. Orduan, ume batek ezin izan badu bere haurtzaroa bere sakontasunean bizitu, ezin izan badu haur izan, hori edozein arazorengatik debekatu baldin bazaio, ba kostatuko zaio heldutasun batera iristea” (E:12/ MAR).*

Testigantza horretatik abiatuta, nabaria da haurraren heltze prozesu egoki bat bermatu ahal izateko, hau da, heldutasun batera modu egoki batean iristeko, haurtzaroa bere sakontasunean bizitzea beharrezkoa duela. Haur Hezkuntzako etapa, haurraren garapenean berebiziko garrantzia baitu eta etapa honetan izandako esperientziak, etorkizunari begira erabakigarriagoak izango dira. Etapa honi dagozkion urteetan egiten eta egiten ez den horrek, ondoren bere bizitzaren zehar eragina izango baitu. Hori dela eta, haurraren garapena eta haurtzaroa, bateratukoak joan beharko lirateke (León-Santi, 2019).

Haurren ongizatean bat-bateko eragile COVID-19 dugu ere. Miren Camisonek EITB-ko irratian izandako elkarrizketan dioen bezala (Camison 2020), haurrak hasieratik birusaren kutsatzaile bezala seinalatuak izan dira, honek bete-betean haien ongizatean eraginez, eta horren adierazgarri, egunerokotik ateratako gertakizun bat dugu:

*“COVID-19aren eragina oraindik ere nabaria da. Gaurkoan, 3 urteko gelan, haur bat denboraldi luze bat etorri gabe daramatzala aipatu didate eta amak emandako arrazoi nagusia COVID-19arengandik kutsatzearen beldur dagoelako da. Amak, orain dela gutxi beste seme bat eduki baitu eta hain txikia denez, larrituta dabil haren ongizatearen inguruan. Hots, haren erabakia haurra eskolara ez ekartzea izan da. Bere anaiari kontagiatu ahal diolako” (2022ko otsailaren 17a).*

Honen aurrean, Mirenek (Camison, 2020) esaten duenaren inguruko baieztapena dugu. Haurrak, kutsatzaile moduan seinalatuak dira, hortik baitator ama honek haren haurra eskolara ez ekartzearen erabakia. Gehienbat, jai berriaren ongizatearen hobe beharrez, baina zer gertatzen da eskolara bertaratzeari utzi dion haur horren ongizatearekin? Kasu honetan, haren ongizatea kontuan hartzen ari da?

Haurren ongizatea beraz, bazter uztean utzi dela esan ahal dugu, eta horren adierazgarri COVID-19aren egoeraren zehar hurrekiko izan den jarrera dugu. Estatuko presidentek, alarma egoeran egindako diskurtsoan, haurrak ez zituen behin ere aipatu, eta dekretua bereziki zorrotza izan zen haiekin; adingabeei etxetik ateratzea debekatuz (Grechyna, 2020). Horrez gainera, lehenak izan ziren etxeetan entzerratuta gelditzen (Camison, 2020).

### 5.1.3. Irakasle-ikasle arteko harremana eta ikaskuntza eragina

Haurren ongizatean eragintzen duen beste alderdietako bat, irakaslearekin bermatzen duten harremana dugu. Harreman mota hau, bizitzaren zehar eraikitzen ditugun beste motatako harremanak bezalakoa da. Hots, ohikoa den bezala, harreman mota guztietan pertsonen arteko eragina ezinbestean ematen da; interakzio mota edo harreman hauek, afektibitatean oinarritzen baitira, hau da, interakzioa dakarrenez, afektuzko harremanak sortzen dira. Gainera, afektibitateak harremanetan paper funtsa du, ikasleen motibaziorako eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua osasungarria izateko beharrezkoa baita (Artavia, 2005; Medina-Escobar, 2015 testuan aipatuta). Honen aurrean, ondorengo testigantzak ditugu adierazgarri:

*“Klasean, hor dago konbibilitate bat eta batenak bestean dauka eragina” (E:12/MAR).*

*“4 urteko gelan beste gertakari bat izan dut. Haur bat gaizki sentiarazten hasi da eta botaka egiten amaitu du. Irakaslearekin hitz egin eta gero hausnartu dugu irakasleak izandako tratua zehazki izan dela. Haurra nahiko sensiblea da eta asko afektatzen dio irakaslea haserretu egiten denean etab. Kasualidadez, gaurkoan, irakasleak errita egin ostean, gaizki aurkitzen hasi da. Haren ongizatean irakasleak izandako jarrera bete-betean eraginez. Horrek ere, haurrak korroan zeuden bitartean, hura gaizki sentitzen zenez, arretarik ez du ezarri eta ondoren, ezin izan dio aurre egin irakasleak prestatutako jardueri.” (2022ko otsailaren 21a).*

*“4 urteko gelan liskarra izan dugu. Betiko haurra, jotzeko arazoak dituen eta jada laguntza profesionalarekin dagoena, I rekin izan du liskarra. Egia da, liskarraren aurrean, I ren jarrera oso bortitza izan dela. Besotik hartu baitu haurra eta kalera atera, ondoren, haurra negar batean eta aurpegi txarrez igaro du egun osoa. Jolasteari utzi dio eta patioan egon da bakarrik. Guztiz baztertua. Honek, berriro ere argi utzi nau, zer nolako eragina duen irakasleak haurren ikaskuntza prozesuan eta ongizatean. Hori bai, irakaslea harekin hitz egitera joan den momentuan, eta barkamena eskatu dioenean, jada haurrak aurpegia aldatu du eta beste modu batean erantzun dio egunari” (2022ko martxoaren 7a).*



Testigantza hauen esker, nabaria da irakasleak haurren ikaskuntzan duen eragina, baina batez ere, alderdi emozionala da ikaskuntza baldintzatzen duen alderdi esanguratsuen. Haurra gaizki egonik, ikaskuntza ez baitu modu berean bermatzen, eta haurra gaizki egotearen arrazoia, irakasleak harekiko izan duen tratutik dator. Hori dela eta, irakaslean jarreran ere, alderdi emozionala garrantzizkoa da. Irakaslea gero eta hobeto egonik, haurrengan esperientzia positiboak eragingo ditu, eta horren esker, haurren ikaskuntza modu egokian emango da. Horretarako ere, irakasleak erabilitako baliabideak onuragarriak izan behar dira:

*“...argi dago irakasten dezuna emoziotik irakatsita askoz gehiago ikasten dela, ordun ba, zure emozioak ezin baldin badituzu kontrolatu, ba... pues ezin dezu berdina irakatsi.” (E:13/ I).*

Oraingoan, haurren testigantzak bilduz:

*“...no me gusta que grite, porque me hace daño en los oídos” (E:6/LUC).*

*“Pues me hace sentir muy bien. Pero si me dijera: “pues tú, tú no te portas bien, tus haces las cosas mal, tu no me entiendes, nose que no se cual” eso me pondría triste. Claro” (E:8/ MT).*

#### **5.1.4. Alderdi emozionalaren garrantzia**

Orain arte aztertu bezala, irakasleak paper esanguratsua du gizartean zein haurren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, eta prozesu hori baldintzatua ikusten da alderdi emozionalaz. Irakasleak haurrengan gero eta esperientzia positiboagoak eragiten baldin baditu, ikaskuntza prozesua modu egokiago batean bermatzen da eta horretarako, ezinbestekoa da haurren zein irakasleen ongizate egoki bat bermatzea:

*“...creo que es vital, o sea porque si tu estas bien y tú sabes gestionar tus emociones, seguramente lo que vayas a transmitir sea, y es lo que te he dicho, al final es súper importante en los niños crear experiencias o emociones positivas en el aprendizaje porque las interioriza mucho mejor, entonces, imagínate un profesor que no tiene ninguna competencia a nivel emocional, estar con no sé cuántos niños en infantil, que.....(ríe), cada uno es de su madre y de su padre, y cada uno tienen sus cosas, pues otras, que vas a estar a grito a no sé qué, es que...” (E:14/ A).*

*“Lehenengo pausoa, zuk zure burua ezagutzea Zu ondo ez badaude, ezin dezu ondo egon umeeekin. Hori argi eta garbi.” (E:12/MAR).*

*“Gu ez bagaude ondo, gela ere, eskutik juten zaigu, eta juten da. Eta nik hori bizi izan dut duela 2-3 hilabeteren zehar” (E:12/ IB).*

Alderdi emozionala beraz, ezinbestekoa da irakaskuntza-ikaskuntza prozesua modu egokian bermatzeko, eta aldaketak eman diren arren, oraindik ere asko dago egiteko:

“...gure bizitza baldintzatzen duen zeozer da” (E:12/MAR).

*“bai eman da aldaketa bat, duela urte gutxi batzuk honuntza, azken 8, 10 urtetatik honuntza aldaketa nabaria da baino oraindik asko dago egiteko” (E:12/MAR.)*

“bai beno, niri faltatu zait asko ikasketetan, ez dakit, ez dakit harreman asko daukan honekin, baina formakuntza emozionala edo, mas kudeaketari buruz, eta badaude, osea, ikasten dugunean, formatzen gaudenean, falta da, gai asko lantzen ditugu baina askotan ez gaituzte prestatzen lana egiteko, eta hori nik sumatu dut pilo bat. Eta da lan bat egin behar duguan orain, lanean hasten garenean...” (E:12/IB).

*“os tendrían que proporcionar herramientas a vosotros para hacer frente a los que os va, a lo que vais a tener que enfrentaros o encontraros en el aula, que no es tal fácil, y, y creo que para mantener la serenidad tiene que hacer mucho auto trabajo , porque sobre todo es que, en infantil, son niños que están en pleno desarrollo, son yo yo yo, porque son súper egocéntricos, entonces, porque les corresponde esa etapa e! pero creo que si tú no tienes mucho autocontrol, creo que es difícil mantener, control y experiencia, es complicado, es complicado sí. Entonces, pues gritas, haces todo lo que sabes que no deberías de hacer” (E:14/A).*

*“...nik gaur egun ia-ia em... batzutan sentitzen det beharra berriro magisteritza goitik behera ikasteko, osea, ikasiko nuke magisteritza goitik behera, osea, ze gauza, berrikuntza pila bat daude, egiten ditugu ikastaroak baina egiten ditugun ikastaroak ez dute ematen sakontzeko”. (E:13/ I).*

Nabaria da beraz alderdi emozionalak biltzen duen garrantzia, eta testigantzek esandakora itzuliz, alderdi honen inguruko formakuntza falta dago. Azken batean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua, estuki lotuta dago alderdi emozionalarekin.

#### **5.1.5. Esperientzia honek niregan izandako eragina: itzultzaile emozionala**

Alderdi emozionalak biltzen duen garrantzia handia dela argi dago, eta nire esperientzia propioa lan honen abiapuntu denez, Practicum III aren zehar egindako lana definitzea ezinbestekoa dut; itzultzaile emozionala izan naiz hain zuzen. Ikerketa-

lan honetan, bete-betean sartu baitnaiz prozesuan eta horren esker, lortu ditudan zenbait emaitza onuragarriak izan dira:

*“Gaurkoan, arestian aipatutako haurra jada etorri da eskolara, eta ohikoa den bezala, harrera momentua izugarri kostatu zaio. Egoerari aurre egiteko, haren irakaslea harengana gerturatuko ez zela jakinda, ni gerturatu naiz eta hasiera batean kostatu zaidan arren, azkenean lasaitzea lortu dut. Itzultzaile emozionala izan naiz, haurrak jakin dezan ulertzen diodala, haren emozioak baliozkoak direla eta seguru sentitu ahal dela” (2022ko otsailaren 21a).*

*“3 urteko gelan gertakari berezi bat izan dugu. Haurrak, goizero bezala, jolas librea izaten dute eta gaurkoan, jolasak jasotzeko unea zenean hurrekin zainketa nuen. Haurrak jasotzen ari zirela, haur konkretu bat, jasotzen beharrean jolasten zegoen eta nahigabe, maila lurrera bota du eta ia ia haren gainean erori da maila. Irakasleak, horren aurrean izugarritzko haserrea adierazi du. Haurra jasotzen egon behar zan eta jolasten zegoen, gainera, maila bota du, orduan, hasierako erreakzioa bronka botatzea izan da, haurraren haserre gerturatzea eta txoko batean besotik hartuta modu agresibo batean iskina batean zigortu du. Haurra, hasierako sustoarekin, behar zuen azkeneko gauzak irakasleak horrelako erreakzioa edukitzea zen. Izugarritzko antsietatea izan du beregan. Negarrez zegoen denbora guztian, arnasestuka eta etengabe begiratzen zidan laguntza eske. Irakasleak, gerturatzeo aukera ez nau eman, baina alde egin duenean, segituan gerturatu naiz haurraren gain. Itzultzaile emozional moduan aritu naiz haurraren berbertan. Haren tripan masajeak eginik eta nire arnasa lasaia eta tonua ere fina zein lasaia izaten. Honela, gutxinaka lasaitzen joan da eta azaldu diot ze garrantzitsua den arauak betetzea” (2022ko apirilaren 27a).*

*“Gaurko arratsaldean 3 urteko hurrekin egon gara eta haur batek, izugarritzko kasketa hartu du. Haur honek, normalean, kasketak hartzen ditu eta limiteak zein arauak ez ditu betetzen. Amak nahi duena egiteko aukera ematen omen dio, irakasleak diotenez. Ba gaurkoan, abestiak abesten ari ginela, bere ondoko ikaskideei molestatzen hasi da eta irakasleak, orduan, inolako azalpenik eman gabe, modu bortitz batean hartu eta tokiz aldatu du. Haurra, negarrez hasi da, lurrera bota da, eta buila montatzen hasi da. Irakasleak, beste 23 haur dituen bezala, ez dio inolako kasurik egin eta hor utzi du, haserre eta negar betean. Haren esanetan, klasea eragozten ari zelako. Nik, beti bezala, horrelako kasuetan esku sartu egiten dudanez, gaurkoan ere itzultzaile emozional moduan aritu naiz. Haurra besoetan hartu, nirekin alde batera eraman, lasaitzeko eskatu eta egoeraren aurrean hitz egin dugu. Zer gertatu den, nola sentitzen den...*

*Honek, segituan lasaitu du haurra eta ondoren, arauen inguruan aritu gara berbetan.*

*Hauek barneratzeko arazoak dituenez, ikasketa txiki bat egin dugu, eta uste dut onuragarria izan dela. Haur guztiak etxera abiatu direnean, irakasleak azpimarratu ditu horrelako egoera konkretuetan nire falta izugarri nabarituko dutela. Haiek ere gurekin ikasten dute gezurra dirudien arren...” (2022ko maiatzaren 3a).*

Beraz, egunerokoari esker lortutako ebidentzia horietan, nabaria da nire papera zertan oinarritu den, eta alderdi emozionalari garrantzia eman izanak, haurrengan lasaitasun, segurtasun eta konfiantza bat sortu duen. Baita ere, haien ikaskuntza prozesua eragotzita ikusten da esperientzia negatiboak izaten dituztenean irakaslearekin. Azken batean, konfiantzak, harreman pertsonalak indartu egiten ditu, erantzun emozional bat proiektatuz ikaskuntza-jardueren uneetan, eta hurrek modu esanguratsu batean aurrera jarraitu ahal izateko, irakaslearen konfiantza zein maitasuna beharrezkoa dute (Fuster Guillen et al., 2018):

*“Umeak oso sensible dia, em... zea, komunikazio ez berbalera, tonoa; nola hitz egiten diezun; begirada; nola hartzen dituzun... Oso sensibleak dia. Igual hori esan deuna. Beraiek ez dia gai gero rrazonamentuak emateko, baino sentitzen dute irakasle honek maite nau, eta gogor egiten dit eta ez dit uzten edozer gauza egiten, edo bai, irakasle honek maite nau eta nere hobebeharren hau eskatzen dit, eta orduan, emaitzak hobeak izaten dira” (E:13 /MR).*

Amaitzeko, praktikaldiaren zehar nire lana egoki egin dudanaren adierazgarri ondorengo testigantzak ditut:

*“... a Leire la quiero mucho” (E:1/ M).*

*“ba oso gustora egon garela zurekin...ba daukazun filling hori umeekin ez galtzeko, eskatuko nizuke, bai...urteekin joaten zaigu brilloa e” (E:12/MAR).*

## **6. ONDORIOAK**

Lan honi amaiera emateko, amaitu nahi dut esanez, barrenak mugiarazi dizkidala esperientzia honek, eta guztiz eskertua nagoela bizitakoarekin. Baita ere, ikerketa-lan honen zehar aurrera eramandako lanak izugarri hazi naizenaren sentimendua sortu dit, eta ikaskuntza handi bat izan da niretzako, arlo akademikoan zein pertsonalean. Kontzientzia hartzeko aukera zein alderdi emozionalean geldialdia egiteko aukera izan baitut. Aldi berean, nire irakaslearen profila eraiki dut; nire printzipio pedagogikoak gero eta argiago izanik. Beraz, hitz gutxitan esanda, GRALa, disfrutatu dudan prozesu bat izan da, eta ikaskuntza sakon baten aukera eman dit.

Besteak beste, lan honen bultzatzailea, alderdi emozionala izan dela esango nuke, eta honek, bete-betean irakaslearen rolak duen garrantzia eta rol honek, haurraren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan nola eragiten duen erantzuten lagundu nau, hau da, nire lanaren helburua lortzen. Zeren bai, irakaslearen rolak ezinbesteko garrantzia du, eta haurraren irakaskuntza-ikaskuntzan eragiten du, eragin hori, bizitako esperientzien arabera ezberdina izanik.

Laburbilduz, ateratako ondorio nagusiak ondorengoak izan dira: gizartea aldatzen den bezala, irakaslearen ikuspegia aldatzen da; irakasleak autoritatea galdu izanak, garrantzia gutxietsi du; autoritatearen galera hurrei gehiegizko ahotsa ematetik dator; alderdi emozionala haurren ikaskuntzan eragiten duen alderdi nagusia da; irakasleak egonkortasun emozionala izanik, esperientzia positiboak eragiten ditu ikasleengan, horrek ikaskuntza egokia eta positiboa bermatuz; emozioak beti daude presente; irakaslearen ongizatea ezinbestekoa da haurren ongizatea modu esanguratsu batean bermatzeko, eta haien arteko eragina eztabaida ezina da, afektuzko harreman guztietan eragina ematea ezinbestekoa baita.

## **7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK**

Lanaren zehar izandako mugetako bat, beste informazioa lortzeko baliabideak garatzerako orduan izandako nahastea izan dela esango nuke. Hasieratik, lanaren marko metodologikoa autoetnografia batean oinarritzen dela adierazi dut, eta ala den arren, ohiko autoetnografia bat ez dela esango nuke. Elkarrizketen bidez lortutako testigantzak eta egunerokotik ateratako bizipenak, ikerketa-lana, kasuaren azterka gisa bezala ulertzera eraman gaituelako ere.

Aldiz, hobekuntza proposamenei dagokionez, nire lanaren xedea zein den ahaztu gabe, proposamena irakaslearen alderdi emozionalaren lanketarekin dator bat. Graduaren zehar, irakaslearen ongizatean oinarritzen den irakasgai bat ezartzea egokia izango zela uste dut. Honela, beharrezkoak ditugun erramintak eskuratzeko alderdi emozionalari dagokionez.

## **8. ERREFERENTZIAK**

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 15a, 9. zk., 1-47. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>

- Baquero, R. (2001). *Vigotsky y el aprendizaje escolar*. AIQUE.
- Berasategi, S. N., Idoia, M. N., Dosil, S. M., Eiguren, M. A., Picaza, G. M., Ozamiz, E. N. (2020). *COVID-19aren ondorioz konfinatuta haurren egoera beren ahotsen bidez*. (Doktorego tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo. Hemen eskuragarri: ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/50689>
- Billeke-Huaiquián, C., Sepúlveda-Mansilla, J. y Rivas-Lasalle, V. (2016). Apego: representaciones de educadoras de párvulos en jardines infantiles en Temuco, Chile. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 14 (2), 1119-1129. <https://doi.org/10.11600/1692715x.14216100115>
- Burutxaga, I., Testor-Pérez, C., Ibáñez, M., Diego, S., Golanó, M., Ballús, E., Castillo, A.J. (2018). Apego y vínculo: una propuesta de delimitación y diferenciación conceptual. *Temas de psicoanálisis*, (15).
- Camison, M. (2020ko ekainaren 4a). *Vivir para ver* [Podcast audioa]. <https://www.eitb.eus/>
- Cerrón Rojas, W. (2019). La investigación cualitativa en educación. *Horizonte de la ciencia*.
- Cruz, P., Borjas, P.M., y Calvo-López, M. (2021). Ludoevaluación de la emoción del miedo en educación infantil. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 19 (1), 1-21. <https://dx.doi.org/10.11600/rlcsnj.19.1.4184>
- Denzin, N. y Lincoln, Y. (2018). Introduction: The Discipline and Practice of Qualitative Research. In Denzin, N. y Lincoln, Y. (ed), *The SAGE Handbook of Qualitative Research* (pp.29-42). SAGE.
- Ellis, C. (2015). Autoetnografía: un panorama. *ASTROLABIO*, (14).
- Erades, N. y Morales, A. (2020). Impacto psicológico por la COVID-19 en niños españoles: un estudio transversal. *Revista de Psicología Clínica con Niños y Adolescentes*, 7 (3), 27-34.
- Fuster Guillen, D., Gálvez Suarez, E., y Pisfil Palza, E. (2018). Estudio fenomenológico: la confianza docente en la práctica pedagógica. *Scientia*, 10 (1).
- Goleman, D. (2020). *Emotional intelligence. Why it can matter more than IQ*. Bloomsbury.

- Grechyna, D. (2020). Health Threats Associated with Children Lockdown in Spain during COVID-19. SSRN. <http://dx.doi.org/10.2139/ssrn.3567670>
- Guerrero Bejarano, M. A. (2016). La investigación cualitativa. *INNOVA* (1) 1-9.
- HaurrakEreBai. (s.f.). Haurrak Ere Bai. <https://haurrakerebai.eus/>
- Hernández Torres, F. E. (2018). La relevancia del docente en la educación centrada en el estudiante. *Voces de la educación*, 3 (5), 215-222.
- Herrera, J. (2017). La investigación cualitativa.
- León, O. y Montero, I. (2015). Fundamentos de la tradición cualitativa. In León, O. y Montero, I. (ed), *Métodos de investigación en psicología y educación* (pp.429-456). McGraw-Hill.
- León-Santi, F. (2019). La importancia del desarrollo infantil y la educación inicial en un país que no son obligatorios. *Revista ciencia UNEMI*, 12 (30), 143-159. <http://dx.doi.org/10.29076/issn.2528-7737vol12iss30.2019pp143-159p>
- Lisboa-Lay, S., Bolvarán-Araya, E., Garay-Marabolí, C., Tapia-Olivero, G., Andrade-Santander, C. (2018). Protagonismo infantil en la escuela. Las relaciones pedagógicas en la construcción de ciudadanía, *Sociedad e Infancias*, (2), 147-170. <http://dx.doi.org/10.5209/SOCI.59474>
- Llamazares Escolar, C.M., Cruz, T.T., García Huelmo, J., y Cámara Palmero, C. (2017). Educación emocional en los profesores de educación infantil: aspecto clave en el desempeño docente. *CONTEXTOS EDUCATIVOS*, (20.), 113-125. <http://doi.org/10.18172/con.2994>
- Martínez, E. M., y Quintero-Mejía, M. (2016). Base emocional de la ciudadanía: narrativas de emociones morales en estudiantes de noveno grado. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 14(1), 301-313.
- Martínez-Fernández, M.A., y García-Montero, I. (2016). Aportes para la educación de la Inteligencia Emocional desde la Educación Infantil. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 14 (1), 53-66. <https://dx.doi.org/10.11600/1692715x.1412120415>
- Mayor Montagud, X. (2015). Complejidad, reflexividad y autoetnografía. Las posibilidades de la investigación narrativa en la mejora de la práctica profesional. *Investigaciones en intervención social*, (9), 3-23.

- Medina-Escobar, B.M. (2015). Influencia de la interacción alumno-docente en el proceso enseñanza-aprendizaje. *Paakat*, (8).
- Michael, J., Rincón, J.R., Cabello, M., Vázquez, A., Duarte-Pérez, J., Abad, F. (2021). *Estudio Nacional sobre la Educación Emocional en los Colegios en España*. Idiena.
- Moran-Flores, F.J. (2019). La relación docente-alumno como variable mediadora del aprendizaje. *San Gregorio*. <http://dx.doi.org/10.36097/rsan.v1i35.957>
- Muños Guerreño, J. (2017). Las claves de la autoetnografía como método de investigación en la práctica social: conciencia y transformatividad. *Investigación cualitativa en ciencias sociales*, (3).
- Nages-Soler, L.J., Laplana-Pedrosa, J.J., Martínez-Rodríguez, A., Montané-Royo, A., Sánchez-Sánchez, R., Sánchez-Sierra, V. (2021). Inteligencia emocional, competencias y educación. In Alzina-Bisquerra, R. *Inteligencia emocional y bienestar IV. Reflexiones, experiencias profesionales e investigaciones*. Asociación Aragonesa de Psikopedagogía.
- Ortega, C. M. (2017). *Las competencias emocionales de las profesoras y el desarrollo socio-afectivo en la educación infantil una perspectiva émica y socio-cultural*. (Doktorego Tesia). Facultad de Psicología, Madrid.
- Palomino Pegalajar, C. M., y Hernández López, L. (2015). Competencias Emocionales en el Proceso de Formación del Docente de Educación Infantil. *REICE*, 13 (3), 95-106.
- Pazdeziganda. (s.f.). *Paz de Ziganda Ikastola*. <https://www.pazdezigandaikastola.eus/es>
- Real Academia Española. (s.f.) Confianza. In *Diccionario de la lengua española*. 2022ko maiatzaren 13an berreskuratua honako webgune honetatik <https://dle.rae.es/confianza?m=form>
- Real Academia Española. (s.f.) Limitar. In *Diccionario de la lengua española*. 2022ko maiatzaren 13an berreskuratua honako webgune honetatik <https://dle.rae.es/limitar?m=form>
- Real Academia Española. (s.f.) Miedo. In *Diccionario de la lengua española*. 2022ko maiatzaren 13an berreskuratua honako webgune honetatik <https://dle.rae.es/miedo?m=form>



Real Academia Española. (s.f.) Niño, ña. In *Diccionario de la lengua española*. 2022ko maiatzaren 6an berreskuratua honako webgune honetatik <https://dle.rae.es/ni%C3%B1o>

Ricaurte, L., Gabriela, S., Plaza, M., y Mirna, Maideline. (2015). Proyecto educativo: normas y límites educativos para la formación integral de los niños de primer año de educación general básica. [Trabajo fin de máster]. Universidad de Guayaquil, facultad de filosofía, letras y ciencias de la educación, Ecuador. <http://repositorio.ug.edu.ec/handle/redug/42307>

Ridgeway, D., Waters, E., & Kuczaj, S. A. (1985). Acquisition of emotion-descriptive language: Receptive and productive vocabulary norms for ages 18 months to 6 years. *Developmental Psychology*, 21(5), 901–908. <https://doi.org/10.1037/0012-1649.21.5.901>

Riquelme, F. (2020). Un reto para el docente. In García, B.J. y Riquelme, F. (Ed.), *Educación para ser: el reto de acompañar en busca de sentido* (pp.21-23). SM.

Sánchez, M. J., Fernández, M., y Díaz, C.J. (2021). Técnicas e instrumentos de recolección de información: análisis y procesamiento realizado por el investigador cualitativo. *UISRAEL*, 8(1), 107-121. <https://doi.org/10.35290/rcui.v8n1.2021.400>

Sarceda, C. (2017). La construcción de la identidad docente en Educación Infantil. *Tendencias pedagógicas*, (30).

Savater, F. (1998). *El valor de educar*. Bogotá: Ariel.

Solís García, P., y Borja González, V. (2017). El efecto Pigmalión en la práctica docente. *Publicaciones Didácticas*, (83).

Torres, M., Salazar, F. G., y Paz, K. (2019). Métodos de recolección de datos para una investigación.

Universo de Familias. (2017ko otsailaren 17a). *Carlos Gonzalez habla sobre el desarrollo del vínculo de apego y el contacto piel con piel* [Bideoa]. <https://www.youtube.com/watch?app=desktop&v=JMg974heOI>

Vergara, J.J. (2020). Prólogo. In García, B.J. y Riquelme, F. (Ed.), *Educación para ser: el reto de acompañar en busca de sentido* (pp.8-9). SM.

Vigotski, L. (1984). *La tragedia de Hamlet. Psicología del Arte*. Fundación infancia y aprendizaje.

## 9. ERANSKINAK

### Elkarrizketak egiteko erabilitako txantiloiak

#### ➤ **Haurrentzako testa:**

#### **Euskaraz**

1. Irakaslearekin egotea eta eskolara etortzea gustatzen zaizu? Zergatik?
2. Irakasleak bronka botatzen dizunean edo haserretu egiten denean zurekin, triste eta beldurrez jartzen zara?
3. Eskolatik kanpo irakasleaz gogoratzen zara, parkean zaudenan adibidez, edo etxean gurasoekin..?
4. Irakasleak ikasten laguntzen dizula uste duzu?
5. Irakaslea triste, haserre edo nekatuta dagoenean konturatzen zara?
6. Irakaslearekin haserre baldin bazaude jolasteko gogoia kentzen zaizu?

#### **Erderaz**

1. ¿Te gusta estar con el profesor y venir al cole? ¿Por qué?
2. ¿Cuándo el profesor te echa la bronca o se enfada contigo, te pones triste y tienes miedo?
3. ¿Fuera del cole te acuerdas del profesor? Cuando estás en el parque o en casa con tus padres por ejemplo...
4. ¿Crees que el profesor te ayuda a aprender?
5. Cuando el profesor está cansado, triste, ¿o enfadado te das cuenta?
6. ¿Si estás enfadado con el profesor se te quitan las ganas de jugar?

#### ➤ **Irakasleentzako eta psikologarentzako galderak:**

#### **Euskaraz**

#### ***Irakaslearen rolaren alderdia:***

1. Gaur egungo irakasleak iraganeko irakasleak baino autoritate gutxiagoa dute?
2. Haurra etengabeko formakuntzan dago, eta, irakaslea?
3. Haurra haren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko protagonista da, eta, irakaslea?
4. Hezkuntza munduan aritzen ez diren langileak, lanean aritzen direnenak baino ikuspegi negatiboagoa dute irakaslearen lanbideari dagokionez?
5. Irakaslearen lanbidearen garrantzia baliozkotzat hartuko litzateke, sozialki haren beharraren kontzientzia zabalduko balitz?

#### ***Haurraren alderdia:***

1. Haurrak helduek baino hausnartzeko gaitasun gutxiagoa dute?
2. Haurra beharrezkoak dituen konpetentziak haren kabuz eskuratzeko gai da?

3. Haurraren garapen integrala bermatu daiteke eskola, familia eta irakasleen arteko elkarlana sustatu gabe?
4. Haurraren ongizateari dagozkion erabakiak soilik familiaren esku uzteak haren garapena baldintzatzen du?
5. Haurrak, haurra izateari utzi ahal dio lehenik heldua izan gabe?

***Harremanaren eta eraginaren alderdia:***

1. Haurraren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko emaitza esanguratsuagoak lortuko ziren irakasleak eskua sartuko ez balu?
2. Irakaslea zorrotza izanik, haurraren emaitza akademikoak okertu egiten dira?
3. Haurraren garapen integrala bermatu daiteke irakaslearen rolarik gabe?
4. Irakasleak arauak eta limiteak ezartzean, haurra kontrolpean mantentzeko ala haren hobe beharrez egiten du?
5. Harreman pedagogikoak, errealitatea ala fantasia dira?

***Alderdi emozionala:***

1. Konpetentzia emozionalak eskuratuta ez dituen irakasle bat erreferente gisa izanik, haurraren ikaskuntzaren garapena arrakastaz lortu daiteke?
2. Modu esanguratsuago, seguru eta eraginkorrago batean ikasiko luketen adimen osasun egoki bat duten irakasleez lagunduta dauden haurrak?
3. Irakasleen adimen osasun egoki bat lortu daiteke eskolak honeniko babesa eta aukera ematen ez baldin badu?
- **MAR:** Bai. Bakarrikan etzuten ez den kasu horietan eta larria baldin bada edo gauza importanteak entzun ez badira, hori geratu egiten da, baina gehienetan entzuten dute.
- **IB:** Nire kasuan ere nahiko ondo
- **L:** Hobeto hobeto
- **IB:** Bakarrik urte bateko esperientzia dakat eee.....(barre egiten du)
- **MAR:** Beti dago familia pare bat zailak direnak, beti urtero.
- **L:** Ia, bueno eta galdera hau pixkat ola.. aber ulertzen dezuten, **haurrak, haurra izateari utzi ahal dio lehenik heldua izan gabe?**
- **IB:** Nola nola?
- **L:** Es que da pixkat rebuscau. Ea haurrak, haurra izateari utzi ahal dion lehenik heldua izan gabe
- **IB:** Osea... (pentsatzen du)
- **MAR:** Bai, bai, nik ulertzen dizut
- **L:** A ver nola ahal deten azaldu. Em...
- **MAR:** Nik uste det haurtzaroa ondo bizitu beharreko fase bat dela, heltzeko. Orduan, ume batek ezin izan badu bere haurtzaroa bere sakontasusean bizitu, ezin izan badu haur izan, hori edozein arazorengatik debekatu baldin bazaio, ba kostatuko zaio heldutasun batera iristea. Ez dakit hori esan nahi zenun
- **L:** Bai, hortik zijoan bai. Ez ze azkenean diogu, haurra izateari uzten diogula heldua izan da ez? O sea, heldua izatera iritsi behar geala, haurra izateari uzteko ez? Eta ordun galdera pixkat zijoan hortik
- **MAR:** Bai eta haur asko heldu asko baino helduagoak dira (barre egiten du)
- **L:** Hori da, nahiz eta heldu ez izan, ahal diola haurra izateari utzi ez? Orduan galdera zijoan hortik, jakiteko ea zuek zer pentsatzen dezuten. Ze batzuk diote ezetz, haurra haurra izateari uzten diola heldua izanda, baina daude haur asko haur ez direnak ez?
- **MAR:** Bai bai bai, ta fase asko daude ez? Ta momentu batzuetan haur batek gauza asko erakusten dizkiogu, orduan, non dago heldutasuna? Ze irizpide hartzen ditugu heldutasuna zehazteko?
- **L:** hori da, hortik zijoan
- **MAR:** Emozionalki askotan, momentu askotan, zu baino helduagoak izan daitezke
- **IB:** Azken finean, gu helduak izan da ere, prozesuan gaude, ikasten ari gara ta...
- **L:** Hori da
- **IB:** Estamos en desarrollo.

- **L:** Bale, pues oain harremana eta eragina ez? Zuen arteko, hau da, irakasle eta haurra artekoa. **Haurraren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko emaitza esanguratsuak lortuko ziren, irakasleak eskua sartuko ez balu? Adibidez, askotan irakaslea oso gainean egoten da, edo oso pendiente, autonomia ez du bermatzen, ordun... baina klaro gero dago baita beste puntua, irakasleak ez duela ezer egiten eta nahiz eta haurrak laguntza eskatu ez zaiola ematen por que autonomía y no se que**
- **MAR:** Ea emaitzak hain esanguratsuak izango...?
- **L:** Hori da, osea eskua sartuko ez balu, zuk uste emaitza esanguratsuak lortuko ziala?
- **MAR:** Ez dakit zer esan
- **IB:** Gauza batzutan agian bai, sormenari buruz edo... ez dakit con exploracion eta dana, hor agian eskua sartzen badu oztopatu egin dezakegu pixkat bat. Baina badaude beste gauza batzuk agian bai sartu beharko genukeela gehiago. Edo, ez, barkatu
- **L:** Ez bai ulertu det
- **IB:** Osea, uste det oreka bat lortu behar dela ere. Oso aske uzten badugu ere, jo badaude gauza batzuk ikasi behar dituztenak eta agian libre badaude ez dituzte ikasten. Orduan, gauza kurrikularrak agian mas bien
- **L:** Bale. **Irakaslea zorrotza izanik, haurraren emaitza akademikoak okertu egiten dira?** Hemen ia pixkat zuen esperientzia...
- **MAR:** Zorrotza baldin bazea eta zorrotzasun horrek umeari egonezina edo sortzen baldin badio ba bai. Em... definitu dezagun zorrotzasun hori...
- **L:** Klaro es que bestela ze zorrotzasun mota ez?
- **MAR:** Klaro, baldin bazea irakasle bezela zorrotza, distiplinatua, gauzak esan eta betetzen dituen, eee, goxotasuna ere transmititzen badakiena, em... akaso ona izango da. Baldin bazea zorrotza, hor joaten zarela ez dezu ezer ulertzen, zure ideietatik ateratzen ez zarena, norbaitek zuk esandakoa betetzen ez duenean, zure emozioak kontrolatzen ez duena... zorrotzasuna alde horretatik ikusita, ba seguru ez dela ona izango irakaslearentzat. Ez dakit, zorrotzasuna igual ulertu daiteke modu ezberdinetan ez? Baina nik uste irakasle batek ordena eta disziplina beregan edukitzea hori ere ezinbesteko lana dela. Ze zu zaude ikasle askorekin, eta denentzako izatea zailena neretzako da kudeatzea daukazu denbora eta energia denentzako izatea ez? Nola kudeatu hori... eta horretarako ez badaukazu zure burua ordenatua, ez bazara disziplinatua eta zorrotza zure burarekiko lehenengo, ba zaila izango da, ez dakit erantzun dizudan
- **L:** Bai, bai, baina adibidez arauak eta limiteak pixkat horretarako daude ez? baino berez zorrotzasuna beharrezkoa da disziplina hori bermatzeko? ze askotan haurrak ia arauekin eta limiteekin goxotasunakin baita eman daiteke, baina askotan ematen du kontrajarriak diala eta instintuki ateratzen da: "hori ez egin!" edo ez?
- **MAR:** Nik igual adjektibo hori kenduko nuke, irakasle zorrotza ez, irakasle zentzuduna, profesionala, ez dakit nola esan.
- **L:** Bai, bai, zorrotzasuna zure ustez beharrezkoa dala, edo bueno igual ez dala hitzik egokiena...
- **MAR:** Disziplinatua esango nuke nik, lehenengo bere buruarekiko, bestela nola espero dezu ikasleek ulertzea hori ez?
- **L:** Hori da
- **MAR:** Da esata bezela erretzea txarra da, kaltegarria, eta zu zigarroakin pues...
- **L:** Klaro
- **MAR:** Edo tabako usaiakin

- **L:** Klaro
- **MAR:** Umeak tontoak ez dira, nola? zigarroa erretzea txarra da eta zu tabako usaia, edo hortzak garbitzea beharrezkoa da baina nik ditut hemen (ahoko hortzak ikutzen ditu) ez dakit zenbat hortz zikin, ez?
- **L:** bai bai eta horta ni joan, ni ere hori ai naiz aztertzen, gure eragina haiekiko
- **MAR:** Bai bai, gu izan behar gera adibide, eredu, hori argi ez baldin badaukagu...
- **L:** Eta horren harira justo, haurrak, bueno oain etorri zait beste galdera bat baino, haurrak zuen ustez ikasten dute entzundakoaz edo ikusitakoaz?
- **MAR:** Ikusitakoaz
- **L:** Klaro, ze zuk ahal diozu esan, ez erre edo erretzea txarra da, baina gero ikusten badizu erretzen zerrekin gelditzen da?
- **MAR:** Edo ez egin garrasi eta zu ohikua
- **IB:** Bizitakoaz, mas ikusitakoaz bizitakoaz ikasten dute
- **MAR:** Eta ikusitakoaz
- **IB:** Bai bai, baina esan nahi det, beraiek ikusten dutena, baina ere entzuten dutena baina ez guk esaten diegulako, baizik eta beraiek bizi dutelako
- **MAR:** Bai eta ikusten dutena, haientzako gu gera jainkoa eta jainkosa, nire neskak denak beidatzen dute horraztu naizen edo ez, o sea dena begiratzen dute. Zu zara eredu. Ni iritsiko banintz ez dakit zer itxurarekin, kriston kiratsa.. bueno ba hori ere... hori ikasiko zuten ere bai, ez dut esan nahi denak holakoak bihurtuko zienik ze gero faktore asko daude eta zorionez, gende eta ez dakit, eragile asko dago, pertsona baten bizitza moldeatuko dutenak edo, baina hor egongo zan M. importantea da, eta pepitorentzat figura bat da eta bueno.... Orduan, jo, nik uste dut, edo ez oihu egin zergatik oihu egin dezu? Eta gu oihuka?
- **IB:** Ia, hori ematen da askotan
- **L:** Bai bai. Egia da.
- **MAR:** Gauza horiek danak. Nik uste guk egiten duguna eta guk itxura bakarrik ia. Txukuna zoazen edo zatar zoazen edo, ba asko dala, tontakeri bat ematen du baina ez da
- **L:** Ez ez ez
- **MAR:** Ze zure burua zaintzea da, hori irakasten dugu ere bai ez?
- **L:** Bai, bai, guztiz ados. Bale, a ver non gelditu naiz... a bai hemen. **Haurraren garapen integrala bermatu daiteke irakaslearen rolarik gabe?** Hau pixka bat dijoa beste batekin ...
- **MAR:** Zer dator galdera tranpa? Aber etxean klaseak ematea badagon edo? (barre egiten du)
- **L:** (barre egiten du), denak dia pixka bat galdera tranpa e
- **MAR:** Nik uste dut ezetz
- **IB:** Integrala...
- **L:** Osea integrala azkenean da dena e, alderdi kognitiboa, fisikoa... konpetentzia guztik, kurrikularrak ere
- **MAR:** Nik uste eskola beharrezkoa dala. Nire iritzia da. Denak nahi ditugu gure umeak babestu, etxean edukita, baina gauza asko, guraso bezala, ezin dituzu eman eta akats ikaragarria da pentsatzea zuk eman diezaiokezula dena, ez... ez det uste
- **L:** (barre egiten du) zu ere ados?
- **IB:** Bai bai bai, guztiz
- **L:** Eskola azkenean klaro, irakaslea egoteko eskola behar da, noski, baño gehio ai naiz zentratzen irakaslearen rolan, ze igual irakasle bat baita izan daiteke irakasle etxe batean ez, partikular modun edo ez?

- **MAR:** Bueno, baina ia aldatzen da pixkat bat, beste elementu bat sartu da etxe hortan
- **L:** Horregatik, ni ai naiz irakaslearen elementuaz bakarrik
- **MAR:** la institutriz (barre egiten du)
- **L:** (barre egiten du)
- **MAR:** Bueno, aber irakaslea irakaslea bakarrik, pues igual hori bakar bakarrik hori isolatu ez gero pues agian izango litzateke aukera lortzekoa
- **L:** adibidez?
- **MAR:** Baina neretzako, garrantzi gehiago ematen diot guztiari ez? Osotasunari. Sozializazioari eskolan...
- **L:** klaro
- **MAR:** Horregatik, horregatik
- **L:** Bale. **Irakasleak arauak eta limiteak ezartzean, haurrak kontrolpean mantentzeko ala haren hobebearrez egiten du?**
- **MAR:** Gehienetan, eta egia esateko, zure gauzak aurrera eramateko etabar ...baina gure burua zurrizteko ez da erreza, 50 ume dituzu aurrean eta baten beharrei harreta eskeiniko diezu eta beste 49ak, orduan....
- **L:** Ez dala erreza
- **MAR:** Neurtzea noiz da benetan oso oso beharrezkoa beste guzti hau alde batera uzteko...
- **L:** Uhjm
- **MAR:** Ba bai
- **IB:** Klima on bat edukitzeko ere, o sea berez arrazoia duzu, askotan egiten dugu guk pentsatuta daukaguna aurrera eramateko
- **L:** Bai, gehio zuengatik haiengatik baino ez?
- **IB:** Bai, baina ere, horrek ere dakar, o esa ekartzen du egiten dugula klima on bat edukitzeko. Osea klima on bat ez baldin badago ezin dugu ezer aurrera eraman, ordun arauak ere hortarako daude, eta ikasleek ere horrekin ikasten dute. Osea ere bada beraientzat
- **L:** Bai bai, eta **harreman pedagogikoak, errealitatea ala fantasia dira?**
- **MAR:** Zein, nola bidetan?
- **L:** Padibidez, es que egon zan behin entzun nuela komentario bat irakasle batena eta hortik etorri zitzaiteen galdera eta esan zitela, es que a veces no se puede ser pedagogica, ez? eta umeari buila egin zion, hartu zion besotik eta utzi zion iskina batean, eta hori esan ziten eta arreta asko deitu zian eta esan nun, klaro ze askotan ematen du harreman pedagogikoak diala ez pues como teoria, baina gero ez praktika, ba haurrari pos goxotasunez hitz egitea, kontuan hartzea, bere nortasuna eraikitze aldera pues konpetentzia batzuk ezarri nahi izatea... hortik, ea zure ustez lortu daiteke benetan?
- **MAR:** Noski baietz, bai noski, hori, baina bai egia dala, momenturen batean, asako ume batek behar duela hartu eta esan, orain bale, eta nei esperientziak esaten dit umeak askotan behar dutela, esaten dugunean harreman pedagogikoa, jolin, Haur Hezkuntzan adin txikiko umeekin oso gauza konkretu zehatzak eta bere errealitatean egon behar dezu, ez zurean. Hau ez da horrela egin behar, zergatik pa pa pa pa pa! Hau ez da deusto, o sea zuk ume horri hitz egin behar diozu bere errealitatea zein den jakitun izan da. Orduan, gauza zehatzak, konkretuak eta motxian. Um? Orduan, bueno ba momentu konkretu batean, hombre, horrela heldu eta ez dakit zer egitea, ba ez...
- **L:** Baño batzutan pues, se nos va ez?
- **IB:** Bai
- **MAR:** Baina hori beste problema batzuk dia, hori da norberaren problema emozionalak

- **IB:** Oso zaila da, bueno, niri oso zaila egiten ari zait ikasi dudana eta ikasten ari naizena praktikan jartzea, ze ez dakit dan ez nagoelako oraindik, ez naizelako oraindik heldua gauza askotan edo egoerak ez direlako hoberenak
- **MAR:** Zer diozu , zergatik? Egoerak?
- **IB:** Egoerak...Haur asko direla.....
- **MAR:** Beti egongo dira
- **L:** Ratioa, bueno ez e, ni lehenengo praktiketako eskolan hamar nituen bakarrik ee
- **MAR:** Nun eondu zinan, herri txiki batean?
- **L:** San Ignacio, Gasteiz. Baina klaro zan guetto bat, jatorri kanpotarreko haurrak zian guztiak
- **MAR:** Baina horre eduki dezakezu hama , baina ze nolako hamar, ojo
- **L:** hori Egia da
- **MAR:** Osea e.... ez, nik uste det gehiago lb. berria zeala
- **L:** eta igual haurren ezaugarriengatik ez? Ez dialako lasaiak
- **MAR:** Baina horrelako taldeak , nik askoz txarragoak izan ditut eta ez bat eta bi talde, ez dakit nola esan. Neri ez zaizkit bereziki zailak iruditzen.
- **L:** Bueno badaude batzuk pintzakin hartzen baldin badituzu...
- **MAR:** Beti, beti, beti
- **L:** Igual experiantzia gutxi izan da justo...
- **MAR:** Klase bat da gizarte bat en pequeñito. Baldin badituzu 25,10, edo bost eta rolak banatu egiten dira, orduan beti edukiko duzu eta kentzen badezu zaila momentu honetan, beste bat bihurtuko da zaila, o sea...
- **L:** Nik ez nun horrela ikusi, baina...
- **MAR:** Bai
- **L:** Zerbait gehiago esan nahi zenun horren inguruan?
- **IB:** Bai beno, niri faltatu zait asko ikasketetan, ez dakit, osea, ez dakit harreman asko daukan honekin, baina formakuntza eeee, emozionala edo, mas kudeaketari buruz, eta badaude, osea, ikasketen dugunean, formatzen gaudenean, falta da, gai asko lantzen ditugu baina askotan ez gaituzte prestatzen lana egiteko, eta hori nik sumatu dut pilo bat. Eta da lan bat egin behar duguan orain, lanean hasten garenean...
- **L:** Guztiz ados e, ni oaindik ez naiz sartu ola lanean baina egia da bai... bale ta ia azkeneko alderdia da alderdi emozionala, justo oain esan dezula pues hortik doa. Em, **konpetentzia emozionalak eskuratuta ez dituen irakasle bat erreferente gisa izanik, haurraren irakaskuntzaren garapena arrakastaz lortu daiteke?**
- **IB:** Zaiala da
- **MAR:** Nik uste det oso baldintzatua egongo dala, bai
- **IB:** Guk ez dakigun zerbait, ezin dugu irakatsi. Beraiek ikasi dezakete, baina uste det ez guregan, osea, gure jarrerak ere asko baldintzatzen du ze...eta gure erreakzioek...dena
- **L:** Bai bai eta beraiek ohartzen dira pila bat
- **IB:** Ikusten dute, eta erreferenteak gara, eta askotan imitatzen dituzte ere
- **L:** **Modu esanguratsoago, seguru eta eraginkorrago batean ikasiko lukete adimen osasun egoki bat duten irakasleez lagunduta dauden haurrak?**
- **MAR:** Zalantzarik gabe. Erderaz esaten dan bezala, "blanco y en botella". Zalantzarik gabe.
- **IB:** Hombre bai
- **L:** Es que normalian gendeak pentsatzen du hori pos ongizate emozionala edo...
- **MAR:** bigarren mailako gauza bat dela ezta?
- **IB:** Ba ez

- **L:** Hori da
- **MAR:** Ba gure bizitza baldintzatzen duen zeozer da
- **L:** Irakaslearen, **bueno, irakasleen adimen osasun egoki bat lortu daiteke, eskolak honekiko babesa eta aukera ematen ez baldin badu?** Adibidez, zuek eduki dezute noizbait eskolak eskainita terapia egiteko aukera edo, igual ez terapia indibidual, grupal zuen artean edo kurtsoak edo sesioak...
- **MAR:** Hori ez da egiten ez, ez, baina bai azken urteetan eman direla pausoak, ezta? formazio emozioetan, formazioak egiten ditugu, ez denok batera, ze ezin da, baina gauzak egiten ari dira etengabe eta bueno pues erlaxazio klaseak eta hola, gurasoentzat eta irakasleentzak ere eskeini izan dira.
- **IB:** Bai, nik ihaz egin nitun, mindfulness. Egia esan laguntzen zun, bai ere daukagu psikologoa hemen eta ere, nahiko prest dago laguntzeko, baina ezin dugu terapia bat egin
- **L:** Karo
- **MAR:** Bai eman da aldaketa bat, duela urte gutxi batzuk honuntza, azken 8, 10 urtetatik honuntza aldaketa nabaria da baino oraindik asko dago egiteko.
- **L:** Adibidez, zuk esan dezu (IBri erreferentzia eginez) graduari horrekiko, beno nire graduari edo hola, ezin digute jakintza ematen, ez dute...osea irakaslea bigarren plano bat da, edo hirugarren plano bat, haurra da bakarrik ez?, baina haurra aurrera eraman ahal izateko nahi degun modun, gu ere, gure burua ezagutu eta osea, ezin degu aurrera eraman guk eskuratuta ez dugun hori, hori da nik pentsatzen detena
- **IB:** Hori da
- **L:** Bueno hori da nik pentsatzen detena
- **IB:** Bai, nahiko ados
- **L:** Ta nire TFGa pixkat horik dijoa ez
- **IB:** Que ez bagaude ondo, gela ere, eskutik juten zaigu, eta juten da. Eta nik hori bizi izan dut duela 2-3 hilabeteren zehar
- **L:** Ia. **Irakasle eta haurren arteko harreman osasuntsua bermatu daiteke, irakasleak egonkortasun emozionala ez baldin badu?**
- **MAR:** Zerri deitzen diozu egonkortasun emozionala?
- **L:** Estabilidad emocional
- **MAR:** Hombre, ongi ez bazaude, hori da ez zaudela ondo
- **L:** Eta nola dakizu ez zaudela ondo? Ze karo hori azkenean, nola ez diguten egiten probak eta...
- **MAR:** Baino hori da lehenengo pausoa, zuk zure burua ezagutzea, nik uste guk badakigula ondo gauden edo ez. Zu ondo ez badaude, ezin dezu ondo egon umeekin. Hori argi eta garbi.
- **IB:** Bai bai eta hori, ez gaudela bakarrik ere, o sea, gu adibidez bi gaude gelan. Horrek ere asko laguntzen du, askotan
- **L:** Bai apoyoa ez?
- **IB:** Bai
- **MAR:** Lagundu eta bueno, erreza ere ez da, ze azkenen elkar bizitza bat da, ez da erreza askotan, hori da etxe batean bi pertsona elkarrekin bizi direnean bezala, osos ondo batzutan, baina beste batzutan...
- **L:** Klaro
- **MAR:** Eta gauza bera klasean, hor dago konbibilitatea bat eta batenak bestean dauka eragina.
- **L:** Baino egia da persona guztiak ez direla kontziente gauzetaz, maila berdinen, eta adibidez eduki dezute noizbait egoera bat non irakasle bat ikusten da ez dagoela aurre egiten modu egoki baten eta utzi egin behar dula, eta zu joan behar izatea esanez: "ei, igual ondo datorkizu deskantsito bat ez"?

- **MAR:** Hombre momentu batzutan norbait ikusten badezu bere onetik aterata, noski, zerbati egin behar dezu, baina orokorren hitz egin da , zu pertsona orekatua baldin bazea, ez daukazu hola horrekin arazorik, ze arazoak denak diugu, baina zure oreka mantentzen badezu, ondo zaude lan egieko, eta hori nabaritzen dezu, egunen batean egun txar-txar bat baldin badakazu, buruko mina daukazulako, edo arazoak dituzulako eta ezin dituzu burutik kendu, nabaritzen dezu umeekin ez zaudela igual, osea hori nabaritzen dezu, ordun nik uste zure burua itzulita, galdetzen zenun horri, zure burua ezagutzen badezu behintzat zertxobait, badakizu noiz zauden ondo ta noiz ez, ez?
- **L:** Hola izan beharko zan
- **MAR:** bai
- **L:** Bale. Eta azkena uste det ia e, bai, **konpetentzia emozionalak eskuratuta izateak, egonkortasun emozionala izatera dakar?**
- **MAR:** Ez ezin bestean, ez ezin bestean, faktore asko dago, gaixotasunak daude, pertsona horrek, ume horrek izan duen bizitza esperientzia, ez ezin bestean, aukera onak dituela bai, baina...bizitza zabala, luzea...
- **L:** Bai, bai ados
- **MAR:** Eta gora beherez josita dago
- **L:** Pues hauek zian galdera, baina zerbait gehio gehitu nahi baldin badezute edo
- **MAR:** Ba oso gustora egon garela zurekin
- **L:** (barre egiten du) eskerrikasko
- **MAR:** Ba daukazun filling hori umeekin ez galtzeko, eskatuko nizuke, bai
- **L:** (barre egiten du) mila esker
- **MAR:** Urteekin joaten zaigu brilloa e
- **L:** Ia, imaginatzen dut
- **MAR:** Asi que, ez eman dena hasieran, dosifikatu pixka bat
- **L:** Kostatze zait hoi neri e, baino bai, egia da
- **MAR:** Eta gero kurtsoak luzeak dira e, eta egunak luzeak dira, ni goizean goiz umeak ez ditut agurtzen energia askorekin, ze gorde behar dezu indarra egun guztirako, orekatua egon behar dezu egun guztian. Haiek dira enferbestentek izan daitezkeenak eta direnak, ari dira ikasten, zuk egon behar dezu beti lasai
- **L:** Baina igual hori ere bai ni bezalako gazteei gertatzen zaizu ilusioagatik ez? Hasi berriak
- **IB:** Bai
- **L:** Eta ez dakigu kontrolatzen ez?
- **IB:** Neri gertatzen zitzaiten hasieran pila bat
- **MAR:** Bai, ematen du bost urte ez dituzula ikusi
- **IB:** Ia, es que da emozioa
- **MAR:** Baina badakizu horrekin zenbat energia juten zaizun tontamente? Eta ez dezu ezer egin, soilik agurtu
- **IB:** Ia
- **MAR:** 50 aldiz horrela... eta gainera, ez dakit hainbeste pozten zara?
- **IB:** Bai bai, ez dakit da como...
- **L:** Nei ere gertatzen zait
- **MAR:** Hainbeste?
- **IB:** Agian exageratzen det baina...
- **MAR:** Nei gertatzen zait como que esta sobre actuado
- **IB:** (barre egiten du)
- **L:** (barre egiten du) nire ustez depende, baita ere da depende haurrak zuregana nola gerturatzen dira



- **MAR:** Haurrak goizean normalean ni puñetero kaso te hacen, lo justo, normalean, eta hori da lo natural. Hombre bai, guk erakutsi behar diegu agurtzen... e... baina nik horrela ezingo nuke
- **L:** (barre egiten du)
- **IB:** (barre egiten du)
- **MAR:** De echo ez det nahi, orduan bukatu degu ezta?
- **L:** Bai bai bai, bukatu degu, mila esker e
- **IB:** Zuri

➤ **E:13**

**Data: 2022/05/03**

**Iraupena: 59 minutu eta 35 segundo**

- **I:** Empiezan las mayores primero (barre egiten du).
- **MR:** Hasiko naiz?
- **L:** Bai bai, hasi lasai.
- **MR:** Ba kaixo, MR naiz eta 36 urte daramatzat hemen eskola berean, hasieratik. Izan zan magisteritza bukatu eta iraila hortan ia hemen nengoen, así que nire esperientzia eskola honetakoa da bakarrik. Em... nik Lehen Hezkuntza ikasi nuen, giza zientziak izan zan nire, nire, ba aukera, eta beti lan egin dut hemen euskararekin gehienbat. Tutore izan naiz urte askotan, gaztelaniaz ematen nuen em... lehen zikloan, denbora askon egon naiz, eta azken urte hauetan, berri bezala, 3 urte daramatzat kindergartenean. Em... orain koordinadora naiz, ez dakit, agenda 20-30eko koordinatzailea eskolan, eta hori besterik ez.
- **L:** Bale.
- **MR:** 59 ditut (barre egiten du).
- **I:** Kaixo, ni I naiz eta 54 urte ditut. Em... magisteritza bukatu nuenean, hasiera baten egon nintzan lanean gehien bat, em... ba, eskolaz kanpoko jardueretan eta denbora libreko jardueretan, eta gero ba, hasi nintzen ia eskoletan, hasieran jangelan eta eskola batean ordu batzuk, bestean besteak, eta, bueno ba, duela 27 urte edo hemen, hemen ari naiz lanean. Em... nik magisteritzan Haur Hezkuntza espezialidadea ikasi nun, bainan eskola honetara etorri nintzenean nere lehenengo urte dexente, em... LHen jardun nuen lanean, batez ere lehenengo eta, eta bigarren mailan. Eta, em... eskola honen berezitasuna alemana denez, ba euskera Haur Hezkuntzan sartzea erabaki zenean, ba momentu horretan em... Haur Hezkuntzako titulazioa nuenez, ni eta beste lankide bat, ba, Haur Hezkuntzan hasi ginen eta urteak pasa ala, ba, azkeneko, eman dezagun, 20 urte hauetan ba euskera orduak pixka bat gehitzen jun dia, bañan ez da eskola-ikastola baten modukoa, esateko, asteen gela bakoitzak 8 bat ordu edo hola ematen ditu, eta bueno ba, ba hori da gure lana hemen eta gure esperientzia.
- **L:** Bale.
- **I:** Beno nire, gure ez (barre egiten du).
- **L:** Bale. Bale ba lehenengo hasiko naiz irakaslearen rolaren galderekin, zuek kokatzeko pixkat, ta lehenengo galderak dio: **Gaur egungo irakasleak iraganeko irakasleak baino autoritatea gutxiagoa dute?**
- **MR:** Bueno, egoera soziala asko aldatu da, lehenengo familiak ez dira oraingo familiak. Oraingo soziedade ez da lehenengo ere, dena aldatu da eta umeak dira horren, em... eredu. Osea esan nahi det...
- **I:** Refleju?
- **MR:** Bizi dutena, ba eskolan ikusten da, em... lehen ba irakasleak esaten zuena, autoridade bat zuen eta gainera gurasoek ere, em... nahiz ondo edo gaizki baina, em... umeari azaltzen zioten, ba ados zeudela, edo noizean behin

izaten zenuen, ba ez nago ados, baina ez dizut autoridadea kendu nahi izan eta. Gurasoak normalean, autoridade hau irakaslearena defendatu egiten zuten. Oraingo umeak berriz, ba, bueno, ezberdinak dia, askoz ere irekiagoak, em... esaten dutena, esaten dute pentsatzen dutena, ia filtrorik gabe, em... ba, em... ume askok, ez dute bereizten zer dan autoridadea eta uste dute berdinak garela. Ordun, zure lana, autoridadea mantentzeko, da lan gehiago egin behar da, lan gehiago, zure lekuan mantentzeko, eta kentzen du gañea energia asko. Energia asko kentzen du, em... ba hori, zure lekuan mantendu behar duzulako. Em... bueno, bestalde gauza onak ere badaude, oraingo umeak ba...bueno...em... a ver... gehiago esaten dute zer pentsatzen duten, lehen zan akatatzea. Orain ia gehio kontatzen da beraiek zer, bueno, beraien kolaborazioa beste era batean lortu behar dezu eta zure autoridadea, ba, onartzen dute, konturatzen direlako, bueno, ba, gehiago dakizula eta errespetoz mantentzen da, em... autoridade hori, erlazioa aldatu egin da, lehen autoridadea zan eta punto eta ez zan kuestionatzen...

- **L:** Hori da.
- **MR:** Eta orain behin eta berriz umeak ohituta daude etxean dena kuestionatzen eta askotan eman behar dituzu arrazoi pilo bat, ba hori, em... eman behar ez direnean, eta horrek energia asko kentzen digu, baina esaten dan bezala, ez da umeen ardura, da, gurasoak ere, askotan ba, em... guri ere, behin baino gehiagotan kentzen digutelako autoridadea...
- **L:** Uhm.
- **MR:** E igual zuk gauza bat esan, guk gauza bat (barre egiten du) zerbait esan, eta gurasoak aurpegia ateratzen dio umeari...
- **L:** Uhm. Bai.
- **MR:** Eta, horregatik, ba zalantzan jartzen digute autoridadea.
- **I:** Beno, zu hitz egiten ari zinela neri ere etorri zait burura ez? Ze oso, em... era bat ados, beno era bat edo bai ia era bat ados nago zuk esan dezun guztiarekin, em... eta horretara iritxi nahi nun nik ere. Ba, garai batean, dena zen autoridadea, irakasleak esaten zuena zan, horrela eta punto ezan kuestionatzen, are gehiago, etxea, etxera joan eta ia-ia, eman dezagun, ia-ia, umeari ez zitzaion ia ezta entzuten ere, ze, zan em... : "hori irakasleak esan badizu zerbaitegatik izango da, asi que neri ez etorri orain kontu kontari" ez?...
- **L:** Uhm.
- **I:** Osea, ia-ia ez zizuten ezta entzuten, sentido horretan, eta hainbat kasutan ba agian umeak arrazoa izan zezakeen, garai hartan...
- **L:** Noski.
- **I:** Baina nik uste momentu honetan pasa garela era bat beste aldera, ze nik ustet filtro, etxean ez daude filtroak, ordun nik uler dezaket gu ere ez garela noski perfektoak, eta gauzak egin ditzazkegula em... ba gaizki edo, edo, kontu gehiagokin egin behar ditugula, bañan gertatzen dana da, em... etxera joaten direnean, umeak, eta gauzak kontatzen dituztenean, gurasoak, entzun; eta bueno, umeari lasaitu edo momentu horretan uste dutela egin behar dutena egin beharreak, em... hasten dira galderak egiten nolabait informazioa ateratzeko umeari, baina, ia, pixka bat pentsatzen irakaslea nola atakatu, bai? irakaslearen aurka nola joan. Ordun, em... pixkat, em... nik ustet, em... umei entzuten zaie bañan entzuten zaie eta nahi ditugu eraman gainera, nahi diegu denarekin arrazoa eman, eta bueno pos, umeak ikasi behar du, ba, gauz, osea, umeak entzun behar ditu, gauzak em... neurri batean. Gurasoak agian hitz egin beharko dute, em... gertatzen den horretaz umearen aurrean izan gabe, eta mantendu zertaraino umeari eman behar diozun arrazoa eta benetan uste badezu irakaslearekin hitz egin behar dezula, ba, zerbaitek ez dulako funtzionatu, agian ez dezu hori dena umearen aurrean esan behar, eta nik ustet gaur egun hori, esaten dala dena modu irekian, eta modu ireki hori ere gurasoei

- pixka bat....erakutsi beharko litzaieke.... liburua ez daukate eta....
- **L:** Uhm. Ez egia da askotan bideratzen dituztela galderak nahi duten terrenora iresteko ez?
  - **I:** Hoi da, eta pasa gera era bat em...
  - **L:** Bai, alde batetik bestera...
  - **I:** Puntu batetik bestera...
  - **L:** Bai, IBek komentu du beldurra, hitza...
  - **I:** Bai.
  - **L:** Em... nola leno ira osea, ikasleak autoridadea errespetatzen zuten baino beldurretik abiatuta, ez errespetutik.
  - **I:** Karo, bai hori da, bai, hori da.
  - **L:** Eta orain ia, em...pues, al libre albeldrio ez? Esan duna MRak...
  - **I:** Hori da, bai, eta errespetua ba bueno, ba bai, baino pixka bat, nik ustet neurri baten galdu dala horregatik, ze karo, zu guraso bezala, etxean, em... zure, em... umearen aurrean esaten badituzu hainbat gauz irakasleari buruz...
  - **L:** Uhm.
  - **I:** Eta zu guraso bezala irakasleari errespetua, neurri batean, galtzen hari baldin bazea umearen aurrean, umeak gauza bera egingo du gero...
  - **L:** Karo, bai, bai.
  - **I:** Eta zu guraso bezala uzten baldin badezu hor, egon behar dula em... marra bat ez dezuna pasa behar, seguraski, em... guzti hoiek, nahiz ta pentsatu, ze pentsatzeko libre zea, ez dituzu umearen aurrean esango, eta agian, zuk pentsatuko dituzu bañan umeak gero errespetu hori ez du galduko, ze umeak ez dizkizu entzun. Tzt, ez dakit, entzutea ez da bide bakarra, ze egia da, ume batek ez du ikasten bakarrik entzuten dunarekin, baizik eta bereziki ikusten dunakin , ta zuk gauza bat pentsatu dezakezu eta gero beste bat egiten badezu, hor ere umeek ikasten du, dudik ez dana.
  - **L:** Bai, bai, ados. Bale, bigarren galderak esaten du: **Haurra etengabeko formakuntzan dago, eta irakaslea?**
  - **I:** Ba bai, noski, haurra etengabeko formakuntzan dago eta irakaslea ere bai. Em... ze ustet, lehengo astean komentatu nizula, nik em... ba, nere ustez, nik gaur egun ia-ia em... batzutan sentitzen det beharra berriro magisteritza goitik behera ikasteko, osea, ikasiko nuke magisteritza goitik behera, osea, ze gauza, berrikuntza pila bat daude, egiten ditugu ikastaroak baina egiten ditugun ikastaroak ez dute ematen sakontzeko. Hombre, egiya da, gure alde daukagula, gure garaian ikasi genuena, beno, auskalo nun dagon, baino, hori baino gehiago, bidean eta egiñean ikasi deguna. Zeren eta horrela ikasten da, baino, gaur egun, em... dauden tendentzia berrikin eta metodologia berrikin, nik ia-ia magisteritza oso berri bat beharko nuke. Ze, iristen zea eta egiten dezu ikastaro bat eta pintzelada batzuk ematen dizkigute eta esaten dezu: "uau, ze interesgarria! ba gustatzen zait!" bale baino es que horretan sakondu nahi badezu, behar ditugu beste ordu pilo bat hori buruz hitz egiteko. Gero, ikasten dezu emozioak direla, neurozientzia direla, em... ez dakit, matematika em... manipulatioak em... berdin zait, edozer gauza berrikuntzekin lotuta eta dena ikasteko eta lanean aritzeko denbora ez daukagu, eta gero, beno, eta gero beste gauza asko guri pertsona bezala, gure garaian ez dizkigutenak erakutsi bainan beno, uste det horretan aurrerago hitz egingo dugula.
  - **MR:** Bai, aldaketa izan da izugarria, teknologia gehien bat izan da aldaketa oso handia em... hori, lehen ikasten genitun metodoak eta, ez dute zer ikusirik orain erabiltzen direnak, eta hori izan da nik uste det azken urte hauetan aldaketa haundiena hori izan dala. Lehen dena kuadernoetan egiten zen, liburuak gora, liburuak behera, eta orain, ia libururik gabe lan egiten degu. Dena oso bisuala, osea, dena asko aldatu da eta ordun ezin zera mantendu zure, em... ba nori,

lehenago pentsamenduekin edo gauzekin. Aldatu beharra dago, orain egia da zenbait, em... beno ba, askotan, beno, gure denbora pertsonaletik kentzen, kendu behar izaten ditugula aldaketa guzti hauekin, ikasgai hauek, berriak egiteko eta hori ere kontutan euki behar da, ba, zer presio daukagun lanean em... beno, ba, desgaste bat dela, umeekin, eta, eta, hori, em... uste det denbora gehiegi eskatzen digutela agian formakuntzarako gure denboratik kenduta. Baino argi dago, aldatu beharra dagoela.

- **I:** Osea, alde batetik beharra daukagu hori egiteko baino...
- **L:** Bai...
- **I:** Baino bestetik, jarraitu behar dugu ordu berdinak lanean, sentitzen dugu behar hori bainan, nondik? guk ere badaukagu gure familia eta gure bizitza pribatua azkenean, eta esaten dezu nondik atera, ez?
- **L:** Klaro, flexibilitadea.... **Haurraren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko protagonista da, eta irakaslea?**
- **I:** Hombre, nik ustet haurra da benetako protagonista, baina egia da protagonista izateko, nik ustet, bera protagonista izateko, beharrezkoa dela bere ondoan egotea pertsona bat, lagunduko diona, bere ikaskuntzaren protagonista izaten. Ze, ondoan dagoenak ez badu ondo egiten, lortu dezakezuna da, bera ez izatea bere ikaskuntzaren protagonista, juxtu kontrakoa. Bai?
- **L:** Orduan zure ustez irakaslearen papera zein da?
- **I:** Neretzako irakaslearen papera da, em... umeari laguntzea em... egoera, edo momentu bakoitzean em... beno, ez zuk nahi dezun lekutik joaten, baizik eta berari entzun eta ikasteko edo interesak izango direnak edo beharrezkoa izango zaiona ikasten joateko, bidea irekitzen, osea, guk jun beharko genuke bere interesak kontutan izanik, eta bere beharrak zeintzuk izango diren badakigunez, neurri baten, ba, bi horiek hartuta, em... laguntzen berari bidea irekitzen. Bai? baino nik ustet azkenean protagonista bera dala. Osea, lortu behar degu beren motibazioa eta berak sentitzen dituen...
- **L:** Uhm...
- **I:** Behar horien arabera, guk, bidea irekitzen joatea.
- **MR:** Ni ados nago esan duenarekin, baina kurioa iruditzen zait em... beno garai baten irakaslea zan zentroa, eta bera zen em... azalpenak ematen zituena, bera em... jakinduria edo irakasleak zeukan. Gero hasi zirenen, lehen esan dudan bezala, teknologiak, goatzen naiz planteatzen zala, bueno ba agian irakasle bat igual ez dala, irakaslerik ez dala behar, hori ere planteatu zan, ze karo, hor dago informazio guztia, em... teknologia hor dago ba orduan, iritsiko da garai bat irakaslerik izango ez denik, agian. Eta bueno, niretzat pozgarria izan da, nik nire iritziz, COVID dela eta, baloratu da gehiago irakaslearen papera. Ze ai giñen, hori, bere autoridadea kentzen, hainbeste ez dala behar, informazioa oain lortzen dute dena teknologiarekin, ordun bueno, gu bigarren plano batean geundela. Egia da lehen protagonismo gehiegi genuela, baina COVIDekin, nik uste det, ikusi dala, nola etxetik lanean eta, pobrea dala, osea behar dutela erlazioa besteekin eta baita ere irakaslea. Irakasleak, noski baietz em... lagundu behar dula ba umeak bideratzen, baño ez bakarrik hori, baita ere heziketa. Ume baten zailtasunak edo, em... bueno, hor egon behar du erne, zailtasunak ateratzeko, ba hori bideratzeko, ze laguntza mota behar duen, em... edo edozer, bere heziketa orokorrean irakasleak hor egon behar du. Ez bakarrik edukiekin, baizik eta pertsona gisa ere bai.
- **I:** Hombre argi dago, pues, zuk esan dezuna, era digitala dela eta, eta hori dena planteatu zan momentuan, jo ba, agian irakasleak ez dira beharrezkoak izango zen sartzen zea Interneten eta dena daukazu, bañan denbora pasa ala, eta ari dira arazo mordoa ateratzen, ba juxtu horregatik, ba ikasle, ume askok erabiltzen dituztelako teknologiak bere kaxa, eta beraiek ez daukate hori dena

- kudeatzeko erramintarik. Daukate, ikusten dituzte gauz pila bat eta beraiek ez dira gai emozionalki ikusten diren gauza asko kudeatzeko. Ordun ba beno, ba behar da, argi dagoena da, tori ordenagailua eta horrekin dena ikasiko zu, ez osea, behar beharrezkoa dela hori kudeatuko duena, batzutan irakaslea izango da eta beste batzutan etxean gurasoak, baina behar beharrezkoa da, heziketa egokia izateko.
- **L:** Bale. **Hezkuntza munduan aritzen ez diren langileak, lanean aritzen direnenak baino ikuspegi negatiboagoa dute irakaslearen lanbideari dagokionez?**
  - **MR:** a ver, errepikatu.
  - **I:** Bai errepikatu.
  - **L:** Hezkuntza munduan aritzen ez diren langileak, adibidez, medikuak...
  - **MR:** Bai?
  - **L:** Lanean aritzen direnak baino, adibidez, zuek, edo beste edozein eskola batean lanean aritzen dala irakasle bezela edo ez, ikuspegi negatiboagoa dute irakaslearen lanbideari dagokionez? Hau da, mediku batek ikuspegi negatiboagoa izango du, hemengo hezkuntza munduan ibiltzen dan langile batek baino?
  - **I:** Beno ba ez dakit, nik ustet denetik dagola, bañan seguraski em... igual ikuspegi okerragoa, beno igual pixkat oso orokortzea da e baino, izango dute igual beraien lanbideak ez daudenak em... lotuta pertsonekin, ze aipatu dezu mediku bat, eta agian mediku batek ez daka, pentsatset e ez dakit, ez dakit nola... ez dauka hain ikuspegi txarra irakaslearena, bañan orokorrean bai egia da em... gure soziedadean jende gehienak irakaslearen ikuspegia da: "Jo, ze oporrak eee!" Hori da..
  - **L:** Uhm.
  - **I:** Ta bestela, denak dira kritikak sensazio hori: "Ah, no, si era broma", bai, si era broma baño parece... ez? Em...
  - **L:** lo sueltas.
  - **I:** Em?
  - **L:** lo sueltas, es broma pero lo sueltas.
  - **I:** Bai, primero lo suelto. Mediku bati buruz ez da hitz egiten em... irakasle bati buruz hitz egiten dan erraztasun, lijeresa bezala hitza, erraztasunarekin. Eta gero baita nik ustet hor, nik ustet arazoa datorrela atzeagotik e. Ze, egiya da orokorrean eta hori ez da aldatu, gu magisteritza ikasi genuetikan gaur eguneraino. Em... magisteritza karrera bezela, hartzen da karrera oso erraz bat bezela, eta, em... beste karrerak ez. Orain jarriko dizut adibide bat oso, oso, oso, oraindela denbora gutxikoa. Nere alaba ere magisteritza ikasten ari da, eta bere lagun bat Nafarroakoa etorri zan arkitektura ikastea Donostira. Bera ez da Donostikoa, ordun, fakultatera joan zenean, arkitekturako fakultatean, neska honi esan zioten: "Bueno em.... ya sabes esto es arquitectura, es dificil, em... y bueno pues vais a ir, vais a ver alli a fuera siempre a los de al lado jugando con la pelota y haciendo juguitos" como, como diciendo, pero bueno esto es asi. Hori esan zioten arkitekturako aurkezpenean. Ordun ia, karo, beste karrera batekoak baldin badaka zuri buruz ikuspegi hori, pues bueno ba, zure reputazioa nolabait esateko, eta neurri baten jendearen ikuspegia da, ba, magisterio.... eso se aprueba con... es que....karo, ez dezu ikasi behar fisikan ikasten den gauza bat, azterketa bat gaintzeko, bañan nere ustez, zuk fisika ikasten dezu eta a ver, fisikoei kendu gabe meritoa, ze izugarriya daukate, berak ditu, em... zientzia base metodologiko batzuk bai?
  - **L:** Uhm.
  - **I:** Baña gurea ez da ciencia como tal, eta gure karreran zehar, guk em... egin behar ditugu igual beraiek baino esperimantu gehiago, por que, beraiek formula

batekin ateratzen dute emaitza, baina guk ez daukagu formularik, gu reformulatzen pasa behar degu bizitza, por que, zuretzako balio duen formulak (Lri seinalatzen dio) ez du balio zuretzako (MRri seinalatzen dio), baina fisikoak formula aurkitzen badu...

- **L:** Denentzat da.
- **I:** Arazo berdina ebaztuko du em... formula horrekin, baina guk ez. Ordun, karrera akaso errexa izango da gainditzeko baño, baño gero, buff, lanbidean ez da hain errexa, ez dakit nola....
- **L:** bai ulertu det.
- **I:** Ordun ba bai bueno, hasierako galderara bueltatuta. Neretzako ikuspegia orokorrean, hori da.
- **MR:** Ala da. Karrera hau gure garaian behintzat, lan asko egin behar zian, lan pilo bat, baina egia esan, hola zaila ez zan. Nik, desde luego, COU-n ikasi nunakin bizi nintzen, egia esan, magisteritzan, arte eta bueno ikasi behar izan nun pilo bat, ta ordun errexa egin zitzaidan, egia da lan asko. Em... gero, hori egia da, esaten zun jendeak: "El que vale, vale y el que no...". Pues zenbait karrera zeuden, pues magisterio, ez dakit, psikologia, bueno... hola errexak zirela bezala, baina, denborarekin nik uste det, orain, idea, jendeak beti bakizu em... beti ikusten da besteen hoberena, besteen lana dena zurea baino hobea da, ze karo, zurea zuk ezagutzen dezu, ze gauza dauden onak, txarrak, ze gauza pasa behar dituzun. Ordun besteena beti ikusten deu hobea eta efectivamente jendeak gehien baloratzen duena ona bezala dira gure oporrak, baino berehalaxe esaten dizue, gero, bai egia esan oraingo ikasleekin, oaingo ikasleak diren bezala.... lehen agian hainbeste hori ez zan entzuten, nik orain asko hori entzuten det, ze opor onak, baino egia esan zure lana zuretzat, esaten dute. Ze oaingo umeak, jendeak badaki orokorrean, ze zailak dauden, eta nik ustet hori hasi dela jendea gehiago baloratzen gure lana, ze lana egiten deun, nik ustet ia, kontziente dela, aparte formakuntza ta hori, osea gure lana, uste det, gehiago baloratzen dela, zaila bezala, ikasleekin aurrera jo behar, holako ikasle mota ditugunetik.
- **L:** Osea zure ustez ikuspegia positiboagoa da?
- **MR:** Nik uste det hobetzen ari dela, em... gure lana beharrezkoa dela eta alde hortatik e. Osea, alde batetik, ze opor ederrak ditugun, baino orokorrean, oaingo gazteen egoera nolakoa, beno edukazio falta dagoen, arauak ez, autoritaterik ez, jadanik uste det hasi dela jendea konturatzen ze labore egiten dan.
- **I:** Hombre, egia da nik ustet ere orokorrean gure garaian autoridade hori, lehen hitz egin degun autoridade hori existitzen zanen, em... eta gure gurasoak ez zutela izan hainbeste zorte, gu bezala, ikasteko, errespeto gehiago zegoen, ze, ez jakinak egiten zien em... beno batzutan ez jakinak izaten da ausartegia baita ere, baino garai hartan ez jakina izateak, egiten zuen beste, beste jakinduna errespetatzea, eta bat zan irakaslearena, baino irakaslearena zan medikuarena eta beste lanbide askorena. Eta nik ustet gaur egun gertatzen dena da, alderantziz. Jakintsuagoak orokorrena gara, askoz jende gehiago dago karrerakin, bañan iruditzen zaigu horregatik, denetik dakigula eta sentitzen gea eskubideekin jende guztiak egiten duena kritikatzeko, eta batzutan kritikatzeko jakin, datu gehiago behar dira. Ordun, hori ere aldatu da neretzako. Garai batean ez zan ezer kritikatzeko, por que, bera zan zekiena eta zuk ezer ez zekiena, zu zinen ezer ez zenekiena. Eta gaur egun karrera bat dakazulako sentitzen zea gai, medikua kritikatzeko, ta esaten dezu, a ver, nik medikuntza ez dakit. Medikua bere lana daka eta berak jakingo ditu ze oztopo ditun eta zein ez. Horregatik em... bizitza orokorrean aldatu da. Gu aldatu gea, em... eboluzionatu degu, bere alde onakin, baina alde onarekin, beste alde txar batzuk sortu dira.

- **L:** Uhm. Bai noski. Bai. Ba hau pixkat, azkeneko galdera hau irakasleen rolari dagokionez, pixka bat hortik dabil. **Irakaslearen lanbidearen garrantzia baliozkotzat hartuko litzateke, sozialki haren beharraren kontzientzia zabalduko balitz?**
- **I:** Bai, nik ustet MR esandunakin...
- **L:** Bai, esan du.
- **I:** COVIDan rollo honekin ba ikusi da benetan irakaslearen papera importantea dela ez?
- **L:** Uhm.
- **I:** Hor umeekin egotea eta em... eta bueno ba nik ustet horrekin, lortuko luke, lortzen ari dela pixkanaka-pixkanaka, bultzadatxo bat ematea ba irakaslearen, em... rolari, paperari eta.. garrantziari ta ikuspegiari.
- **L:** Bale. Bale ba bigarren alderdia da haurra, ordun oain ia zentratuko gea gehio haurran, ta lehenengo galdera da: **Haurrak helduek baino hausnartzeko gaitasun gutxiagoa dute?**
- **MR:** A ver, umeak gehio sentitu egiten du, em... orduan, prozesu elaborazio hori, izaten da gehiago helduen gauza. Umeak sentitzen dutena, em... hor dago, esan nahi det, ez dute hainbeste elaboratzen, eta helduak bai. Uste det, ez dakit, ustet erantzun dizudala ezta?
- **L:** Bai, ea zuretzako ba hori....
- **I:** Bai, nik ustet, haurrak, em... a ver, hausnartzeko gaitasuna ere ikasi egiten da, ordun, em... nola ikasten da? Hombre, sentitzen dezuna, nolabait, kudeatzen erakusten dizuten neurrian, ikasten dezu hausnarketa hori egiten eta horretarako importantea da helduaren papera, umea, bakarrik uzten badezu bere emozioekin eta bere sentimenduekin eta ez badiozu laguntzen, ez du ikasiko hausnartzeko, em... geldituko da, puf... nik ustet depresio batean sartuko daitekeela, ez badiozu laguntzen kuadeatzen.
- **MR:** Baino poliki-poliki hori urteekin ikasten da, ez da, orain txikiekin gaudenez, ba beno eta ala ere, beraien artean ere, ezberdintasun haundiak daude. Hor daude gurasoak ere, hitza jartzen badiete bere sentimenduei, espresatzen uzten badiete, eta ohitura hori hartzen badute, ba , trebetasuna hartzen dute, baino hori ere txikitatik etortzen da eta etxetik, ere bai, eta gure laguntzarekin noski, eta urteekin ikasten da.
- **I:** Eta nik ustet egia dela gaur egun ere, horretan gehiago laguntzen dela. Ze gehiago entzuten zaio umeari.
- **L:** Hori egia da. **Haurra beharrezkoak dituen konpetentziak haren kabuz eskuratzeko gai da?** Hemen pixkat sartzen da leno komentatu dezuna zuk ez? (MRari begiratzen dio). Ba, irakaslearen rola agian ez da beharrezkoa ez? Haurrak bere kabuz ahal du.
- **MR:** Bueno esperientziak ematen du; zuk ume bati, ba ez dakit adibidez sozializazioa, em... parkera eramaten badezu, um... beste ume batzuekin kontaktuan dagoen esperientzia horrekin, ikasten doa zenbait trebetasun. Ez ba, ume bati ez badiozu aukera hori ematen, ba gero polikigo ikasiko du edo zailtasunak izango ditu. Ordun, ume batek trebetasun horiek hartzeko, em... eman behar diozu aukera, hori esperimintatzeko eta bere kabuz ikasten joateko. Zailtasunak baldin baditu, ba, hor gaude gu ere, poliki-poliki ba hori bideratzen, gurasoekin hitz egiten eta esperientzi hoiek izan behar ditu.
- **I:** Beno ba, hori da, ni ere ados nago, bere kabuz, bere kabuz ikasteko aukera, bakar bakarrik ez, zeren em... beno, hemen daukagun metodologia orain, ba ateak ireki...
- **L:** Bai.
- **I:** Txoko horiek preparatu, azkenean txoko guzti hoiek daude pentsatuta, bai, umea bere kabuz ikasten joateko eta bere gaitasunen arabera, ze agian joango

- da leku batera eta ez da izango, ez da sentituko eroso em... gauza batekin, ba igual bere burua ez dagoelako horretarako prestatuta oraindik baino beste gauza batekin bai. Ordun, txokoak prestatu behar ditugu ba bere kabuz ikasten joateko...
- **L:** Hori da.
  - **I:** Bañan guk aurretik prestatuta eta pentsatuta, ba, ba bueno, ba ume batek adin honetan egin dezake, hemendik, hasta el infinito por que denak ez daukate gaitasun berdina, asi que, saiatu behar gea beraientzako prestatuko ditugun esperientzia, jolasak eta abar denetara molda daitezten, zeren batzuk gutxiago beharko dute eta beste batzuk gehiago. Bere kabuz bai, bainan, guk aurreikusita lehendikan zer, zer nahi degun, edo zer, zer ikastea nahi dugun.
  - **L:** Bale. **Haurraren garapen integrala bermatu daiteke, eskola familia eta irakasleen arteko elkarlana sustatu gabe?**
  - **MR:** a ver, berriro...
  - **I:** a ver, a ver, a ver...
  - **MR:** Bermatu zer da?
  - **I:** Bermatu, garantizar.
  - **MR:** Garantizar. Berriz, a ver.
  - **L:** Haurraren garapen integrala bermatu daiteke, eskola, familia eta irakasleen arteko elkar lana sustatu gabe? Hau da, elkar lana eman gabe?
  - **I:** Ez , nik ustet, importantea dela denen elkarlana bestela, buff..., garapen integrala ba bueno, ba a ver, em... gerta leike ba, ba bueno ba agian, em... elkarlan hori egon gabe...
  - **L:** Adibidez, gurasoak etxean irakasten dienak hurrei, hau MAREk aipatu du, em... homeschooling, badakizue zer dan ez? Eskolara ez datozen haurrak.
  - **I:** Bai, bai, bai baña a ver, nik ustet gerta leike, em... familia eta eskola eta beste hainbat arlo elkarrekin sustatu gabe, egon gabe, bai? Haurraren garapena egokia izatea, baña zergatik? Ba agian arlo hoyek em... bakarrik, bakarka hartuta ondo funtzionatzen dutelako, bere familian dena ondo funtzionatzen baldin badu bañan ez dago harremanetan eskolakin ba ez delako etortzen, ezin dutelako, beti egongo da gabeziren bat, bai, baño bueno. Etxean dena ondo dijoa, eskolan denak ondo funtzionatzen du, ba bueno ba , batzutan gauzak ere errexak izaten dira eramaten, beste batzutan ez.
  - **L:** Uhm.
  - **I:** Gerta leike baietz, baño normalean funtzionatuko du askoz hobeto, batez ere gabeziak baldin badaude, horiek denak elkarlanean haritzen baldin badira. Osea, baldin badaukagu super ume bat, em... imajinatu, pepito bat.
  - **L:** Uhm.
  - **I:** Adibide bezela hartzeko ez?
  - **MR:** Hori bera pentsatu det.
